



2016 EKITALDIKO KONTABILITATE IREKIERA

EGITEKO GIDA

AURKIBIDEA

	Orrialdea
- Sarrera	1. Orr.
- 2016ko irekierari dagokionez TAKPPOk dakartzan berrikuntza nagusiak	1. Orr.
- 2016ko ekitaldiko kontabilitate irekiera egiteko prozedura	3. Orr.
- 2015eko itxierako idazpeneko kontuak eta 2016ko irekierako idazpenera pasatzea	5. Orr.
- Kasu partikularrak	41. Orr.



KONTABILITATEA IREKITZEKO GIDA

2016ko EKITALDIA

SARRERA

2016ko ekitaldian aplikatuko da lehenengo aldiz Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berria (TAKPPO), 2015eko abenduaren 15eko [86/2015 Foru Dekretuak](#), Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duenak, onartua.

2016ko urtarrilaren 1ean egokitu behar da 2015eko TAKPPO berrira, eta aldaketa asko egin beharko dira, ez bakarrik kontuen kodeak eta izenak aldatzea. Izan ere, aldaketa garrantzitsuak dakartza tokiko kontabilitate plan berriak, tokiko entitateen eragiketa ekonomikoak eta balantzean sartzen diren ondare elementuak eta emaitza kontu ekonomikoa eta ondarearena erregistratzeko eta baloratzeko moduan. Aldaketa horiek aplikatu ahal izateko, kontabilitate entitateek nahitaez aztertu eta barneratu beharko dituzte kontabilitate araudi berriak baloratzeko eta erregistratzeko ezartzen dituen irizpide berriak.

TAKPPO 2015aren edukiak ez ditu ukitzen **2015eko ekitaldiko urteko kontuak ezta lehenagokoak ere**. Urteko kontu horiek, kasuan kasuko ekitaldian indarrean zegoen kontabilitate arauari jarraituz prestatu eta emango dira (86/2015 Foru Dekretuaren Hirugarren xedapen iragankorra).

2016ko IREKIERARI DAGOKIONEZ TAKPPOk DAKARTZAN BERRIKUNTZA NAGUSIAK

Araudi berrian hainbat kasu daude ondaren elementuak orain arte ez bezala sailkatzera behartzen dutenak. Horien artean daude ibilgetu materiala, erabilera orokorrerako ondasunak, aktibo eta pasibo finantzarioak, aurrekontuko hartzekodun eta zordunak eta antzekoak.

Alde horretatik, entitateak dauzkan **aktibo ukigarriak**, higitarri nahiz higiezinak, urtebetetik gorako bizitza baliagarria badute (ibilgetu materiala 2004ko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorren (2004ko KPPOren) arabera), bi azpitaldetan jasoko dira plan berrian (Lurzoruaren ondare publikoa kontatu gabe): ibilgetu materialean eta ondasun higiezinetak inbertsioetan.

21 "Ibilgetu materialak" azpitaldean jasotzen dira lehen 2004ko kontabilitate planean 22 azpitaldean jasotzen ziren ondasun guztiak, salbuespen batekin: 4. "Ondasun higiezinetak inbertsioak" aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritako ezaugarriak betetzen dituztelako, ondasun higiezinetak inbertsio gisa sailkatzen diren ondasun higiezinak (lurrak eta eraikuntzak). Era berean, 21 azpitaldean sartuko dira **erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak**, 2015eko abenduaren 31ko kontabilitate itxierako idazpenean kontabilizatuta ez badaude, salbu eta ezinezkoa bada balio fidagarria egoztea.

Ibilgetu materialaren beste berritasun bat, sailkapenari dagokionez, **fabrikazio, eraikuntza edo muntaketa prozesuan dauden ondare elementuak** azpitalde berezi batean sartzea da. Azpitalde horretan erregistratu beharko dira egoera horretan dauden ibilgetu materialeko elementuak edo ondasun higiezinetak inbertsioak (Lurzoruaren ondare publikoa salbu), barne hartuz, aurreko ekitaldiaren itxiera datan (2015eko abenduaren 31n) 20 "Erabilera orokorrerako inbertsioak" azpitaldean erregistratuta zeuden erabilera orokorrerako destinatutako inbertsioak.



Ibilgetuko ondasunen inguruko beste berritasun bat **salgai dauden aktiboena** da. Kategoria berri horretan jasotzen dira salgai jarrita dauden ibilgetu ez-finantzarioko aktiboak, Lurzoruaren ondare publikokoak ez badira. Kontabilitatea irekitzen den datan, 7 "Salgai dauden aktiboak" aintzatespen-eta balioespen-arauak ezarritako baldintzak betetzen dituen ondasunik baldin badago, ondasun horiek birsailkatu egin beharko dira eta aktibo korronteen artean sartu.

Aktibo eta pasibo finantzarioei dagokienez, kontabilitate araudi berriak beste era batera sailkatzen ditu ondare elementu horiek balorazioaren aldetik (bost kategoria ezartzen ditu aktibo finantzarioentzat eta bi pasibo finantzarioentzat). Aktibo eta pasibo finantzarioak sailkatzeko entitateak egiten duen aukeraren arabera, kontabilitatea irekitzeko prozesuak eskatuko du, kontu berrietan birsailkatzeaz gain, aktibo eta pasibo horietako batzuen balioa doitzea.

Bestalde, **aurrekontuko zordun eta hartzekodunei** eta antzekoei dagokienez, bigarren mailako kontuetan garatzeko modu berri bat sartu da (aurrerago azalduko dugu, dokumentu honen amaierako "Kasu partikularrak" ataleko 4. eta 5. puntuetan), eta hori ere kontuan izan beharko da 2016ko kontabilitate irekieran.

Azkenik, kontabilitatea ireki aurretik, izaera subjektiboa mugatu behar da kontabilitate entitateari berari eta berarekin erlazionatzen diren entitateei dagokienez. Horrela bada, kontabilitate entitate bakoitzak zehaztu beharko du:

a) Jaberik gabeko entitatea den edo, aitzitik, entitate jabe bat edo gehiago dituen. Bereizketa hori beharrezkoa da entitatearen Ondarea behar bezala sailkatzeko eta, kasua denean, entitate jabearekin egindako eragiketak erregistratzeko eta horien informazioa emateko.

Jaberik gabeko toki entitateak Legetik sortzen direnak dira (udalerrriak, udalerrria baino lurralde eremu txikiagoko toki entitate nortasun juridikodunak...); jabea duten kontabilitate entitateak, berriz, beste entitate batzuen akordioaren ondorioz sortzen dira (tokiko organismo autonomoak, udalerrrien mankomunitateak edo tokiko entitateei atxikitako kontsorzioak).

b) Taldea osatzen duten entitateak, talde anitzeko entitateak eta elkartuak. Entitate horiek identifikatu behar ditu kontabilitate entitateak, horiekin dituen harreman zordunak eta hartzekodunak zuzen sailkatu ahal izateko. Taldeko entitate, talde anitzeko entitate eta entitate elkartu kontzeptuak sektore publikoko urteko kontu kontsolidatuak formulatzeko Arauetan definituta daudenak izango dira ([HAP/1489/2013 Aginduak](#), uztailaren 18koak, onartuak).



2016ko EKITALDIKO KONTABILITATE IREKIERA

Gipuzkoako tokiko entitateek 2016ko kontabilitatearen irekiera nola egin behar duten **86/2015 Foru Dekretuaren Lehenengo xedapen iragankorrak** arautzen du, honela:

1. Foru dekretu honen bidez onartutako instrukzioa aplikatzen duten entitateek irizpide hauen arabera egingo dute 2016ko kontabilitatearen irekiera idazpena:

a) 2015eko ekitaldiko kontabilitatearen itxiera idazpenean ageri diren saldo guztiak jaso behar dira bertan, haren barruan beste ezein saldorik sartu gabe.

b) Saldo horiek dagozkien kontuetan egotzi behar dira, foru dekretu honetan onartzen den Toki Administrazioa egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezartzen denari jarraituta.

2. 2016ko ekitaldiko kontabilitatea irekitzeko idazpena egin ondoren, beharrezkoak diren doikuntza idazpenak egingo dira Toki Administrazioa egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean exijitzen dituen aktibo eta pasibo guztiak 2016ko urtarrilaren 1ean erregistraturik geratzeko, eta planaren arabera onartu ezin diren partida guztiei (aktibo eta pasibo guztiei) baja emateko.

Edonola ere, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik entitatean dauden eta 2004ko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritakoarengatik aktibatu ez diren azpiegituren, ondare historikoko ondasunen eta bestelako ondare elementuen kasuan, ez da beharrezkoa izango horiek aktiboan sartzea, haien balorazioa ezin bada modu fidagarrian egin.

3. Ondare elementu guztiak 2015eko ekitaldia ixtean duten kontabilitate balioaren arabera baloratuko dira, salbu eta «Arrazoizko balioaren arabera baloratutako aktibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituztenak» eta «Arrazoizko balioaren arabera baloratutako pasibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituztenak» kategorietan sailkatzen diren aktibo eta pasibo finantzarioak, eta «Aktibo finantzario salgarriak» kategorian sailkatzen diren aktibo finantzarioak, horiek guztiak 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioaren arabera baloratuko baitira.

Interes tasa efektiboa kalkulatzeko, 2016ko urtarrilaren 1a izango da erreferentziatzko hasiera data.

Era berean, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen inbertsioak egin badira zuzenbide publikoko taldeko entitateen, talde anitzeko edo entitate elkartuen ondarean, eta haien kostuari dagozkion kontabilitate balioa zein den ezin bada zehaztu, data horretan duten balio berreskuragarriaren arabera baloratuko dira. Ebidentzia hoberik ezean, balio hori zehazteko kontuan hartuko da entitate partaidetuaren ondare garbia, balorazioaren egunean dauden gainbalio tazituek zuzendua.

Praktikan, irekiera prozesuak bi fase izango ditu:

1. fasea.- **2016ko irekiera idazpena egitea:** 2015eko itxiera idazpeneko saldo guztiak jaso beharko ditu, eta horiek bakarrik. Saldo horiek kontabilitate plan berrian dagozkien kontuei egotziko zaizkie.

(SAREKO aplikazioa erabiltzen duten entitateetan, sistemak eginda emango du 2016ko irekierako idazpena 2015eko ekitaldiaren itxiera prozesatzen denean. 2015eko itxiera idazpeneko ondare kontuen saldoak kontabilitate plan berriko kontuetara pasatuko dira 2016rako, gida honekin batera ematen den baliokidetasun taulan ezarritakoaren arabera).



2. fasea.- **Irekiera idazpenaren ondorengo doikuntzak** (2016ko urtarrilaren 1ean egin beharrekoak). Doikuntza horiei dagokienez:

- a) SAREKO aplikazioaren erabiltzaileei sistemak emango die irekierako idazpena, baliokidetasun taularen arabera prestatua. Hala ere, gerta liteke 2015eko saldo bat 2016ko hainbat konturen artean banatu behar izatea, edo 2016an esleitutako kontua egokia ez izatea saldoa sorrarazi zuen eragiketaren izaera kontuan izanda, eta beste era batera esleitu behar izatea. Horrelakoetan, **birsailkatzeko** kontabilitate idazpena egin beharko da. (Irekierako idazpena eginda etorri ez bada, eta erabiltzaileak egin baldin badu, doikuntza horiek irekierako idazpenean eginda geratuko dira, eta ez da beharrezkoa izango hemen azaltzen den doikuntza egitea).
- b) TAKPPO 2015 lantzeko erabili den filosofia eta KPPO-2004 lantzeko erabili zena ez dira berdinak eta hori ikusten da balantzearen aktiboa eta pasiboa definitzeko batak eta besteak ezartzen dituzten irizpideetan. Horrek esan nahi du 2016ko urtarrilaren 1ean **alta** eman behar zaiela plan berriak kontabilizatzea behartzen duen –eta zaharrak behartzen ez zuen– aktibo eta pasiboei (esate baterako, erabilera orokorrerako inbertsioei) eta **baja** eman behar zaiela TAKPPO berriak kontabilizatzen uzten ez duen –eta plan zaharrak uzten zuen– aktibo eta pasiboei (adibidez, hainbat ekitalditan banatzeko gastuei). Salbuespen bat ezartzen da modu fidagarrian baloratu ezin diren elementuentzat: kasu horretan, aktiboan ez sartzeko aukera ematen da.
- c) Lehenengo xedapen iragankorreko hirugarren puntuak ezartzen duenez, ondare elementu guztiak 2015eko ekitaldia ixtean duten kontabilitate balioaren arabera baloratuko dira, salbu eta «Arrazoizko balioaren arabera baloratutako aktibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituztenak» eta «Arrazoizko balioaren arabera baloratutako pasibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituztenak», eta «Aktibo finantzario salgarriak», horiek guztiak 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioaren arabera baloratuko baitira. Era berean, ezartzen du zuzenbide publikoko taldeko entitateen, talde anitzekoen edo entitate elkartuen ondarean egindako inbertsioak kostuaren arabera baloratu behar direla, eta, kostua ezin bada zehaztu, 2016ko urtarrilaren 1ean duten balio berreskuragarriaren arabera. **Balorazio horiek eta irekierako idazpenean emandako balorazioak berdinak ez badira**, behar diren doikuntzak egin beharko dira.

Partida bikoitzeko idazpenen bidez egingo dira doikuntzak, eta kontrapartida, birsailkatzeko doikuntzak izan ezean, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontua izango da normalean, nola eta ez den beste konturen bat erabili behar, TAKPPOren bigarren zatian ezarritako irizpideak aplikatuta.

Entitateak argi eta garbi identifikatu beharko du doikuntza bakoitzaren jatorria (alta, baja, birsailkatzea eta balio aldaketa) eta guztien berri eman beharko du 2016ko urteko kontuetako memorian (25. puntuan). Hori da 86/2015 FDaren Bigarren xedapen iragankorrek agintze duena.

Oharra: 2016ko kontabilitatea ireki aurretik, oso komenigarria da, kontabilitatea arazteko prozesu guztiak burutzea, 2015eko abenduaren 31n entitateak zuen benetako ondare egoera zuzen adieraz dezan.



2015eko ITXIERAKO IDAZPENEN KONTUAK ETA 2016ko IREKIERAKO IDAZPENERA PASATZEA

Kontuan izanda gida honen hartzaile gehienak SAREKO aplikazioaren erabiltzaileak direla, atal honetan azalduko dugu, lehenik, aplikazioak nola pasatzen dituen 2015eko itxierako saldoak 2016ko irekierako idazpenera, eta, bigarrenik, nolako birsailkatzeak egin behar diren kasu bakoitzean, birsailkatze horiek partida bikoitzeko idazpenen bidez egingo direlarik (OC eragiketen bidez). Aipatu aplikazioa erabiltzen ez duten entitateetan, irekierako idazpenean bertan egin ahal izango dira saldoen birsailkatzeak.

100 Ondarea	
Doikuntzak: Birsailkatzea	Jabea duten eta ez duten entitateen arteko bereizketari buruz, ikus "2016ko irekierari dagokionez TAKPPOk dakartzan berrikuntza nagusiak" puntuaren bukaera.
Oharrak: 2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa 100 "Ondarea" kontu berean sartuko da. Hala ere, jabea duten edo jabeak dituzten entitateak direnean, kontabilitate plan berriko kontu hauetako batean birsailkatu beharko da saldoa, kasu bakoitzean dagokionaren arabera: – 1010 "Diruzko ondare-ekarpena". – 1013 "Erakunde jabearen edo jabeen beste ekarpen batzuk". – 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak". Normalean, 1010 "Diruzko ondare-ekarpena" azpikontura edo 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura pasatuko da saldoa, eta azkeneko hori izango litzateke hondarreko kontua 100 "Ondarea" kontuaren saldoaren jatorri desberdinak identifikatu ezin direnean. Jaberik ez duten entitateetan ez da birsailkatzerik egin beharko.	

101 Adskripzioko ondarea	
Doikuntzak:	
Oharrak: Kontu hau ez da sartzen kontabilitate plan berrian. 18 "Transferentziak eta diru-laguntzak" (4. puntua) eta 19 "Ondasunen eta eskubideen erabileraren esleipenak eta beste doako lagapen batzuk" aintzatespen- eta balioespen-arauen arabera, entitate nagusi edo jabetik hartutako ondasun adskripzioak ondare ekarpenzat hartzen dira. Horrela bada, 2016ko irekiera idazpenean, kontu horren saldoa zuzenean pasatuko da 1011 "Ondasunen eta eskubideen ekarpena" azpikontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.	



102 Lagapeneko ondarea

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

Kontu hau ez da sartzen kontabilitate plan berrian

18 "Transferentziak eta diru-laguntzak" (2 b.2 puntua) eta 19 "Ondasunen eta eskubideen erabileraren esleipenak eta beste doako lagapen batzuk" aintzatespen- eta balioespen-arauen arabera, hartutako ondasunak gauzazko diru-laguntzat hartuko dira eta birsailkatu egin beharko da 102 kontuaren saldoa.

Beraz, 2016ko irekiera idazpenean, 102 kontuaren saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 130 "Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak" kontura. Hala ere, lagapenean hartutako ondasun amortizagarriak direnean, saldoaren zati bat, 2015eko abenduaren 31n metatutako amortizazioari dagokiona, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura pasatu behar da. Horrela bada, erabiltzaileak doikuntza bat egin beharko du, 130 "Ibilgetu ez-finantzarioa eta salgai dauden aktiboak finantzatzeko diru-laguntzak" kontuaren saldoa gutxituz eta 120 kontuaren saldoa gehituz.

106 Adskribituriko ondarea

Doikuntzak:

Oharrak:

Kontu hau ez da sartzen kontabilitate plan berrian.

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.

107 Lagatako ondarea

Doikuntzak:

Oharrak:

Kontu hau ez da sartzen kontabilitate plan berrian

18 "Transferentziak eta diru-laguntzak" (4. puntua) eta 19 "Ondasunen eta eskubideen erabileraren esleipenak eta beste doako lagapen batzuk" aintzatespen- eta balioespen-arauen arabera, beste entitate batzuen alde egindako ondasunen eta eskubideen erabilerarako doako lagapenak gauzazko diru-laguntzat hartuko dira.

Beraz, 2016ko irekiera idazpenean, 107 kontuaren saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.



109 Erabilera orokorrera emandako ondarea

Doikuntzak:

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 1. kasua "Erabilera orokorrerako inbertsioak"

Oharrak:

Kontu hau ez da sartzen kontabilitate plan berrian.

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.

120 eta 121 Itxitako ekitaldien emaitzak (positiboak eta negatiboak)

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, bi kontu hauek 2015eko itxieran duten saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura. Era berean, 2016ko irekieran 120 kontuak duen saldoa gehitu edo gutxitu egingo da, kontrapartida gisa kontu hori erabiltzen duten doikuntzen ondorioz.

129 Galerak eta irabaziak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 129 "Ekitaldiko emaitza" kontura. 2016ko ekitaldian zehar, kontu honen saldoa, dela positiboa edo negatiboa, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura pasatu beharko da.

142 Erantzukizunetarako hornidura

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honek 2015eko abenduaren 31n duen saldoa zuzenean pasatuko da 142 "Erantzukizunetarako epe luzeko hornidura" kontura.

Hala ere, muga-eguna 2016an duen pasibo zatia 582 "Erantzukizunetarako epe motzeko hornidura" kontuan birsailkatu beharko da.



143 Konponketa handietarako hornidura

Doikuntzak:

Oharrak:

Kontu hau ez da sartzen kontabilitate plan berrian.

2016ko irekiera idazpenean, kontu honek 2015eko itxieran duen saldoa zuzenean pasatuko da 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.

150 Epe luzerako obligazio eta bonuak

Doikuntzak: Hainbat

Ikus 271 "Balore negoziagarrien gastu finantzario geroratuak" kontua.

Oharrak:

Kontu hau mantendu egiten da kontu plan berrian, izen eta kontu zenbaki berarekin, eta saldoa zuzenean pasatuko da 2015etik 2016ra.

Saldo horretatik baja eman behar zaio, horrelakorik dagoenean, 150 "Epe luzeko obligazioak eta bonuak" kontuan kontabilizatuko zorrei buruz 271 "Balore negoziagarrien gastu finantzario geroratuak" kontuan kontabilizatutako gastu finantzario geroratuei dagokien zatiari.

Baja emateko doikuntza hori egindakoan, kontuaren saldoa birsailkatu egin beharko da, hala badagokio, 164 "Balore negoziagarrietan adierazitako epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin" kontuan.

155 Bestelako balore negoziagarrietan ordezkaturako zorrak

Doikuntzak: Hainbat

Ikus 271 "Balore negoziagarrien gastu finantzario geroratuak" kontua.

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 159 "Epe luzera negozioa daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak" kontura.

Saldo horretatik baja eman behar zaio, horrelakorik dagoenean, 155 "Bestelako balore negoziagarrietan ordezkaturako zorrak" kontuan kontabilizatuko zorrei buruz 271 "Balore negoziagarrien gastu finantzario geroratuak" kontuan kontabilizatutako gastu finantzario geroratuei dagokien zatiari.

Baja emateko doikuntza hori egindakoan, 159 "Epe luzera negozioa daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak" kontuaren saldoa birsailkatu egin beharko da, hala badagokio, 164 "Balore negoziagarrietan adierazitako epe luzeko zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin" kontuan.



170 Epe luzerako zorrak kreditu-entitateekin

Doikuntzak: Baja

Ikus 272 "Beste zor batzuen gastu finantzario geroratuak" kontua

Kontu hau mantendu egiten da kontu plan berrian, kontu zenbaki berarekin eta "Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekin" izenarekin, eta saldoa zuzenean pasatuko da 2015etik 2016ra.

Saldo horretatik baja eman behar zaio, horrelakorik dagoenean, 170 kontuan kontabilizatuko zorrei buruz 272 "Beste zor batzuen gastu finantzario geroratuak" kontuan kontabilizatutako gastu finantzario geroratuei dagokien zatiari.

171 Epe luzerako zorrak

Doikuntzak: Hainbat

Ikus 272 "Beste zor batzuen gastu finantzario geroratuak" kontua

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 179 "Epe luzeko bestelako zorrak" kontura.

Saldo horretatik baja eman behar zaio, horrelakorik dagoenean, 171 "Epe luzerako zorrak" kontuan kontabilizatuko zorrei buruz 272 "Beste zor batzuen gastu finantzario geroratuak" kontuan kontabilizatutako gastu finantzario geroratuei dagokien zatiari.

Baja emateko doikuntza hori egindakoan, 179 "Epe luzeko bestelako zorrak" kontuaren saldoa birsailkatu egin beharko da, hala badagokio, 169 "Epe luzeko beste zor batzuk taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin" kontuan.

173 Epe luzerako ibilgetuaren hartzekodunak

Doikuntzak: Hainbat

Ikus 272 "Beste zor batzuen gastu finantzario geroratuak" kontua

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 2. kasua "Errentamendu finantzarioak edo leasing-a"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 173 "Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak" kontura.

Saldo horretatik baja eman behar zaio, horrelakorik dagoenean, 173 "Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak" kontuan kontabilizatuko zorrei buruz 272 "Beste zor batzuen gastu finantzario geroratuak" kontuan kontabilizatutako gastu finantzario geroratuei dagokien zatiari.

Kontuan geratzen den saldoa birsailkatu egin beharko da, kasu bakoitzean dagokionaren arabera, kontabilitate plan berriko kontu hauetako batean:

- 169 "Epe luzeko beste zor batzuk taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin".
- 174 "Epe luzeko finantza-errentamenduengatik hartzekodunak".



180 Epe luzera jasotako fidantzak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

Kontu hau mantendu egiten da kontu plan berrian, izen eta kontu zenbaki berarekin, eta 2015eko abenduaren 31ko saldoa zuzenean pasatuko da 2016ra.

Saldo horren barruan baldin badaude taldeko entitateek edo talde anitzekoek edo elkartuek emandako fidantzak, horien zenbatekoa birsailkatu egin beharko da eta kontabilitate plan berriko 165 "Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe luzera jasotako fidantzak" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

185 Epe luzera jasotako gordailuak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

Kontu hau mantendu egiten da kontu plan berrian, izen eta kontu zenbaki berarekin, eta 2015eko abenduaren 31ko saldoa zuzenean pasatuko da 2016ra.

Saldo horren barruan baldin badaude taldeko entitateek edo talde anitzekoek edo elkartuek emandako gordailuak, horien zenbatekoa birsailkatu egin beharko da eta kontabilitate plan berriko 166 "Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe luzera jasotako gordailuak" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

200 Erabilera orokorrera bideraturiko lur eta ondasun naturalak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2300 "Lur eta ondasun naturalen egokitzapena. Ibilgetu materiala" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.

201 Erabilera orokorrera bideraturiko azpiegitura eta ondasunak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 232 "Ekoizpen-bidean diren azpiegiturak" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.



208 Erabilera orokorrera bideraturiko ondare historikoa

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 233 "Ekoizpen-bidean diren ondare historikoaren ondasunak" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.

209 Erabilera orokorrera bideraturiko bestelako ondareak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 238 "Ekoizpen-bidean den bestelako ibilgetu materiala" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.

210 Ikerketa eta garapen gastuak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 200 "Inbertsioa ikerketan" kontura. Saldo horren zati bat garatzen ari diren inbertsioei badagokie, 201 "Inbertsioa garapenean" kontuan birsailkatuko da. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

212 Jabetza industrial eta intelektuala

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 203 "Jabetza industrial eta intelektuala" kontura. Ez da beste doikuntzarik egin behar.



215 Aplikazio informatikoak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 206 "Aplikazio informatikoak" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.

217 Finantza errentamendu erregimeneko eskubide eta ondasunak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 2. kasua "Errentamendu finantzarioak edo leasing-a"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 219 "Bestelako ibilgetu materiala" kontura.

Ondasunaren izaeran arabera, batzuetan saldo hori birsailkatu egin beharko da, kontabilitate plan berriko 21 "Ibilgetu materialak" azpitaldeko edo 22 "Ondasun higiezinak" azpitaldeko konturen batean.

Araudi berriaren arabera, hau da kontabilitatean eman behar den tratamendua:

- Aktiboa izaeraren arabera kontabilizatuko da, normalean ibilgetu materialean.
- Amortizazio metatua, horretarako kontu espezifikoetan kontabilizatuko da, ondasunaren izaeraren arabera.
- Zorrak Epe motzeko eta epe luzeko errentamendu finantzarioagatik hartzekodunak izeneko epigrafeetako kontu espezifikoetan jasoko dira.

218 Bestelako ibilgetu inmateriala

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 209 "Bestelako ibilgetu ukiezina" kontura.



22 Ibilgetze materialak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, azpitalde honetako kontuak zuzenean pasatuko dira kontabilitate plan berriko 21 "Ibilgetu materialak" azpitaldeko kontuetara, baliokidetasun taulan zehaztutako moduan, salbuespen batekin: 2299 "Salmenta egoeran dauden ondasunak" kontuaren saldoa zuzenean pasatuko da 380 "Salgai dauden aktiboak" kontura.

21 azpitaldeko kontuetara pasatutako saldoaren barruan saltzeko prozesuan dauden ondasun ibilgetuak badaude eta betetzen badituzte kontabilitate plan berriko 7 "Salgai dauden aktiboak" aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritako baldintzak, zenbateko hori birsailkatu egin beharko da eta 380 "Salgai dauden aktiboak" kontura eraman, eta, behar izanez gero, baja eman ondasun horien amortizazio metatua jasotzen duten kontuei. Era berean, une horretara arte metatutako narriadura edo balio galtzea 398 "Salgai dauden aktiboen balio-narriadura" kontuan birsailkatuko da (Salgai dauden ondasunak ez dira amortizatzen, baina balio-narriadura izan lezakete).

220 Lur eta ondasun naturalak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontu guztien saldoa zuzenean pasatuko da 210 "Lur eta ondasun naturalak" kontura. Saldo hori birsailkatu egin beharko da honako kontu hauetako batean edo gehiagotan, kasu bakoitzean dagokionaren arabera:

- 220 "Inbertsioak lurretan"
- 2300 "Lur eta ondasun naturalen egokitzapena. Ibilgetu materiala".
- 2301 "Lur eta ondasun naturalen egokitzapena. Ondasun higiezinetakoko inbertsioak".

221 Eraikuntzak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontu guztien saldoa zuzenean pasatuko da 211 "Eraikuntzak" kontura. Saldo hori birsailkatu egin beharko da honako kontu hauetako batean edo gehiagotan, kasu bakoitzean dagokionaren arabera:

- 221 "Eraikuntzetako inbertsioak".
- 2310 "Ekoizpen-bidean diren eraikuntzak. Ibilgetu materiala".
- 2311 "Ekoizpen-bidean diren eraikuntzak. Ondasun higiezinetakoko inbertsioak".



222 Instalazio teknikoak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 215 "Instalazio teknikoak eta beste instalazioa batzuk" kontura. Saldo horren zati bat dagoeneko muntatzen hasita dauden instalazioei badagokie, birsailkatu egin beharko da eta 235 "Muntatze-bidean diren instalazio teknikoak eta beste instalazio batzuk" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

223 Makineria

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 214 "Makineria eta tresneria" kontura. Saldo horren zati bat dagoeneko muntatzen hasita dauden makinei badagokie, birsailkatu egin beharko da eta 234 "Muntatze-bidean diren makineria eta tresneria" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

224 Tresneria

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 214 "Makineria eta tresneria" kontura. Saldo horren zati bat dagoeneko muntatzen hasita dagoen tresneriari badagokio, birsailkatu egin beharko da eta 234 "Muntatze-bidean diren makineria eta tresneria" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

226 Altzariak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontu guztien saldoa zuzenean pasatuko da 216 "Altzariak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.



227 Informazio prozesuetarako ekipoak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 217 "Informazioa prozesatzeko ekipamenduak" kontura. Saldo horren zati bat dagoeneko muntatzen hasita dauden inbertsioei badagokie, birsailkatu egin beharko da eta 237 "Muntatze-bideko informazioa prozesatzeko ekipamenduak" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

228 Garraio elementuak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontu guztien saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 218 "Garraio-elementuak" kontura. Saldo horren zati bat dagoeneko muntatzen hasita dauden inbertsioei badagokie, birsailkatu egin beharko da eta 238 "Ekoizpen-bidean den bestelako ibilgetu materiala" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

229 Bestelako ibilgetu materiala

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen azpiko kontu guztien saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 219 "Bestelako ibilgetu materiala" kontura. Saldo horren zati bat dagoeneko muntatzen hasita dauden inbertsioei badagokie, birsailkatu egin beharko da eta 238 "Ekoizpen-bidean den bestelako ibilgetu materiala" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

230 Lurrak

Doikuntzak: Birsailkatzea

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 240 "Lurzoruaren ondare publikoko lurrak" kontura. Saldo horren zati bat egokitzen ari diren inbertsioei badagokie, birsailkatu egingo dira eta 243 "Lurzoruaren ondare publikoko lurren egokitzapena" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.



231 Eraikuntzak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 241 "Lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzak" kontura. Saldo horren zati bat egiten ari diren inbertsioei badagokie, birsailkatu egingo dira eta 244 "Ekoizpen bidean dauden lurzoruaren ondare publikoko eraikuntzak" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

232 Hirigintzako aprobetxamenduak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 249 "Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

239 Udal lurzoru ondarezko beste ondasun batzuk

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 249 "Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

240 Tokiko sektore publikoko entitateetako partaidetzak

Doikuntzak:

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2501 "Epe luzeko partaidetzak taldeko erakundeetan. Merkataritza-sozietateetan" kontura.



242 Tokiko sektore publikoko entitateen errenta finkoko baloreak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2520 "Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, muga-gunera arte mantendutakoak" kontura.

Saldoaren zati bat saltzeko dauden baloreei badagokie, birsailkatu egingo da eta 2521 "Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten balore salgarriak" kontura pasatu, eta, kasu horretan, 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioaren arabera baloratu beharko dira.

244 Tokiko sektore publikoarentzako epe luzerako kredituak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 253 "Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

248 Tokiko sektore publikoan akzioen gainean egin gabeko ordainketak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 259 "Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.



250 Kapital bidez egindako finantza inbertsio iraunkorrak

Doikuntzak: Hainbat

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 2511 "Epe luzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan. Merkataritza-sozietateetan eta sozietate kooperatiboetan" kontura.

Saldoaren zati bat beste era bateko entitateetako partaidetzei badagokie, birsailkatu egingo da eta 260 "Epe luzeko inbertsio finantzarioak ondare-tresnetan" kontura eramango da.

260 kontuan jasotzen diren partaidetzak, "aktibo finantzario salgarrien" kategorian sailkatzen direnean, 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioan baloratu beharko dira, nola eta ez diren kostu balioan baloratzen, arrazoizko baliorik ez dagoelako.

251 Errenta finkoko baloreak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2520 "Taldeko erakundeen, talde anitzekoen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak" kontura. Saldo hori birsailkatu egin beharko da honako kontu hauetako batean edo gehiagotan, kasu bakoitzean dagokionaren arabera:

- 2521 "Taldeko eta talde anitzeko erakundeen eta elkartuen epe luzeko zorrak adierazten dituzten balore salgarriak".
- 2610 "Epemugara arte mantendutako epe luzeko zorra adierazten duten baloreak".
- 2611 "Epe luzeko zorra adierazten duten balore salgarriak".

2521 eta 2611 azpikontuetan sartutako baloreak, "aktibo finantzario salgarrien" kategorian sailkatzean, 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioaren arabera baloratu beharko dira.

252 Epe luzerako kredituak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2629 "Epe luzeko bestelako kredituak" kontura.

Saldoa talde anitzeko entitateei edo elkartuei emandako epe luzeko kredituei dagokienean, birsailkatu egingo da eta 253 "Taldeko erakundeek, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak" kontuan sartuko da.



253 Ibilgetuaren besterenganatze bidezko epe luzerako kredituak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2620 "Ibilgetua inorenganatzeagatik epe luzeko kredituak" kontura.

Saldoa taldeko entitateei edo talde anitzekoei edo elkartuei emandako epe luzeko kredituei dagokienean, birsailkatu egingo da eta 253 "Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituak" kontuan sartuko da.

256 Errenta finkoko baloreen epe luzerako interesak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 266 "Zorra adierazten duten baloreen epe luzeko interesak" kontura.

Saldoa taldeko entitate batek edo talde anitzeko edo elkartu batek jaulkitako baloreen interesari badagokie, birsailkatu egingo da 255 "Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen epe luzeko interesak" kontuan. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

257 Kredituen epe luzerako interesak

Doikuntzak: Birsailkatzea

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 267 "Kredituen epe luzeko interesak" kontura.

Saldoa taldeko entitate batean edo talde anitzeko edo elkartu batean egindako inbertsioen interesari badagokie, birsailkatu egingo da 255 "Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen epe luzeko interesak" kontuan. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.



259 Akzioen gainean egin gabeko ordainketak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 269 "Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe luzeko ordainketak" kontura.

Saldoa taldeko entitate batean edo talde anitzeko edo elkartu batean egindako inbertsioei badagokie, birsailkatu egingo da 259 "Taldekoko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe luzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak" kontuan. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

260 Epe luzera eratutako fidantzak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 270 "Epe luzera eratutako fidantzak" kontura.

Behar izanez gero, saldoa 257 "Taldekoko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko fidantzak" kontuan birsailkatuko da. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

265 Epe luzera eratutako gordailuak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 275 "Epe luzera eratutako gordailuak" kontura.

Behar izanez gero, saldoa 258 "Taldekoko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan eratutako epe luzeko gordailuak" kontuan birsailkatuko da. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

270 Zorren formalizazio gastuak

Doikuntzak: Baja

Kontabilitate plan berrian ezarritako kontzeptuen esparruan, kontu honek ez ditu betetzen aktibotzat hartzeko bete behar diren baldintzak.

Beraz, 2016ko irekierako idazpenean kontu horren saldoa zuzenean eramango da 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura (*Aktibo bati baja emateko doikuntza da: SAREKOn erabiltzaileentzat irekierako idazpenean integratuta geratuko da*).



271 Balore negoziagarrien interes geroratuen gastuak

Doikuntzak: Baja

Oharrak:

Kontabilitate plan berrian ezarritako kontzeptuen esparruan, kontu honek ez ditu betetzen aktibotzat hartzeko bete behar diren baldintzak. Beraz, kontuaren saldoa kitatu egin beharko da, pasiboan balore negoziagarrien gastu finantzario geroratuen errenboltso balioa jasotzen duten kontuen kontra.

Praktikan, 2016ko irekiera idazpenean, kontuaren saldoa zuzenean pasatuko da 150 "Epe luzeko obligazioak eta bonuak" kontura, kontu horren saldoa gutxituz.

Gastu finantzarioei dagokien pasiboko kontua ez baldin bada 150 "Epe luzeko obligazioak eta bonuak" kontua, zuzenketako idazpen bat egingo da: saldoa berriro ere 150 "Epe luzeko obligazioak eta bonuak" kontuan sartuko da, eta pasiboan dagokion kontua murriztuko da. Hauetako kontu bat izango da murrizten dena:

- 159 "Epe luzera negozia daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak".
- 500 "Epe motzeko obligazioak eta bonuak".
- 509 "Epe motzera negozia daitezkeen beste balore batzuetan adierazitako zorrak".

272 Interes geroratuen gastuak

Doikuntzak: Baja

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 2. kasua "Errentamendu finantzarioak edo leasing-a"

Oharrak:

Kontabilitate plan berrian ezarritako kontzeptuen esparruan, kontu honek ez ditu betetzen aktibotzat hartzeko bete behar diren baldintzak. Beraz, kontuaren saldoa kitatu egin beharko da, pasiboan gastu finantzario geroratuen errenboltso balioa jasotzen duten kontuen kontra.

Praktikan, 2016ko irekierako idazpenean, 272 "gastu finantzario geroratuak" kontuaren saldoa zuzenean pasatuko da 170 "Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekin" kontura, kontu horren saldoa gutxituz.

Gastu finantzarioei dagokien pasiboko kontua ez baldin bada 170 "Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekin" kontua, zuzenketako idazpen bat egingo da: saldoa berriro ere 170 "Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekin" kontuan sartuko da, eta pasiboan dagokion kontua murriztuko da. Hauetako kontu bat izango da murrizten dena:

- 173 "Epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak".
- 520 "Epe motzeko zorrak kreditu-erakundeekin".
- 523 "Epe motzeko ibilgetu-hornitzaileak".



279 Bestelako gastu amortizagarriak

Doikuntzak: Baja

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura.

Hala ere, kontuaren saldoan sartuta dauden gastu amortizagarri batzuk besteren jabetzan egindako obrei buruzkoak badira, aktibo definizioa betetzen dutenak, eta errentamendu edo lagapen kontratua ezin bada errentamendu finantzariotzat hartu, 6 "Errentamenduak eta antzeko eragiketak" aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritakoaren arabera, orduan, ibilgetu ukiezin gisa birsaikatu beharko dira, kontabilitate plan berriko 207 "Errentamendu-erregimenean erabilitako edo lagatuko aktiboen gaineko inbertsioak" kontuan, baldin eta betetzen badira 5 "Ibilgetu ukiezina" aintzatespen- eta balioespen-arauan 5.2 puntuan ezarritako baldintzak.

Ahal dela, inbertsioak jatorrizko balioan erregistratu beharko dira eta, aparte bereizita, 2015eko abenduaren 31ra arte metatutako amortizazioa (2004ko kontu planaren arabera amortizatutako gastuak) eta, uniformetasun printzipioari jarraituz, amortizatzen jarraituko da, saneatzeko hasieran aurreikusitako epealdi berean.

281 Ibilgetu inmaterialaren amortizazio metatua

Doikuntzak: Birsailkatzea

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 2. kasua "Errentamendu finantzarioak edo leasing-a"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2809 "Bestelako ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua" kontura.

Gero, ibilgetu bakoitzaren izaeraren arabera, 2809 kontuaren saldoa birsaikatu egin beharko da 280 "Ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua" kontuaren azpiko konturen batean edo gehiagotan.

Hala ere, saldoan sartutako amortizazio metatu batzuk errentamendu finantzarioko kontratuenak badira, zenbateko horiek birsaikatu egin beharko dira, ondasunaren izaeraren arabera, 281 "Ibilgetu materialaren amortizazio metatua" eta 282 "Ondasun higiezinetakako inbertsioen amortizazio metatua" kontuetan.

282 Ibilgetu materialaren amortizazio metatua

Doikuntzak: Birsailkatzea

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2819 "Bestelako ibilgetu materialaren amortizazio metatua" kontura.

Gero, 2819 kontuaren saldoa birsaikatu egin beharko da 281 "Ibilgetu materialaren amortizazio metatua" edo 282 "Ondasun higiezinetakako inbertsioen amortizazio metatua" kontuen azpiko konturen batean edo gehiagotan, ondasunen izaera kontuan izanda.



283 Udal lurzoru ondarearen amortizazio metatua

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2849 "Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideen amortizazio metatua" kontura.

Gero, azken kontu horren saldoa birsailkatu egin beharko da 284 "Lurzoruaren ondare publikoaren amortizazio metatua" kontuaren azpiko beste konturen batean edo gehiagotan, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

291 Ibilgetu inmaterialaren balio galeragatiko hornidura

Doikuntzak: Birsailkatzea

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 2. kasua "Errentamendu finantzarioak edo leasing-a"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2909 "Bestelako ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura" kontura.

Gero, azken kontu horren saldoa birsailkatu egin beharko da 290 "Ibilgetu ukiezinaren balio-narriadura" kontuaren azpiko beste konturen batean edo gehiagotan, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

Saldo horretan sartzen badira errentamendu finantzarioko kontratuen bidez eskuratutako ondasunen balio galerari dagozkion zenbatekoak, horiek birsailkatu egin beharko dira 291 "Ibilgetu materialaren balio-narriadura" edo 292 "Ondasun higiezinak inbertsioen balio-narriadura" kontuen azpiko kontuetan, kasu bakoitzean egoki denaren arabera.

292 Ibilgetu materialaren balio galeragatiko hornidura

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2919 "Bestelako ibilgetu materialaren balio-narriadura" kontura.

Gero, azken kontu horren saldoa birsailkatu egin beharko da 291 "Ibilgetu materialaren balio-narriadura" edo 292 "Ondasun higiezinak inbertsioen balio-narriadura" kontuen azpiko beste konturen batean edo gehiagotan, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.



294 Udal lurzoru ondarearen balio galeragatiko hornidura

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2939 "Lurzoruaren ondare publikoko bestelako ondasun eta eskubideen balio-narriadura" kontura.

Gero, azken kontu horren saldoa birsailkatu egin beharko da 293 "Lurzoruaren ondare publikoaren balio-narriadura" kontuaren azpiko beste konturen batean edo gehiagotan, ondasunaren izaeraren arabera.

297 Epe luzerako balore negoziagarrien balio galeragatiko hornidura

Doikuntzak: Hainbat

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2970 "Mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura" kontura.

Gero, azken kontu horren saldoa birsailkatu egin beharko da, irizpide hauen arabera:

- Taldeko entitateek edo talde anitzekoek edo elkartuek jaulkitako epe luzeko zorra adierazte duten baloreak direnean, eta "mugaegunera arte mantendutako inbertsio" gisa sailkatzeak, balore horien galera berreskuragarriengatik egindako balio zuzenketei dagokien saldoa 2950 "Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura" kontuan birsailkatuko da.
- Zorra adierazten duten baloreak eta "aktibo finantzario salgarri" gisa sailkatzeak direnean (eta, beraz, arrazoizko balioan baloratu beharrekoak), balore horien galera berreskuragarriengatik egindako balio zuzenketen saldoari baja emango zaio, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontua hartuta kontrapartida gisa.
- Sozietateen kapitaleko partaidetzak eta "taldeko entitateen, talde anitzekoen eta entitate elkartuen ondarean egindako inbertsio" gisa sailkatzeak direnean, partaidetza horien galera berreskuragarriengatik egindako balio zuzenketen saldoa kontabilitate plan berriko 2941 "Taldeen, talde anitzean eta elkartuta dauden merkataritza-sozietateetako eta sozietate kooperatibetako epe luzeko partaidetzen balio-narriadura" kontuan birsailkatuko da.
- Sozietateen kapitaleko partaidetzak eta "aktibo finantzario salgarri" gisa sailkatzeak direnen, eta arrazoizko balioan baloratzekoak, partaidetza horien galera berreskuragarriengatik egindako balio zuzenketen saldoari baja emango zaio, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontua hartuta kontrapartida gisa.
- Sozietateen kapitaleko partaidetzak eta "aktibo finantzario salgarri" gisa sailkatzeak direnean, baina arrazoizko baliorik ez dagoelako kostu balioan baloratu beharrekoak, partaidetza horien galera berreskuragarriengatik egindako balio zuzenketen saldoari baja emango zaio, partaidetza horiek jasotzen dituen kontuaren kontra, eta irekierako idazpenean partaidetzen balio garbia bakarrik sartuko da.



298 Epe luzerako kredituen kaudimengabeziatarako hornidura

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 2980 "Epe luzeko kredituen balio-narriadura" kontura.

Gero, taldeko entitateei, edo talde anitzekoei edo elkartuei emandako kredituen narriadura baldin bada, 2960 "Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe luzeko kredituen balio-narriadura" kontuan birsailkatuko da.

30 Merkataritzakoak

34 Ekoizkin erdibukatuak

31 Lehengaiak

35 Ekoizkin bukatuak

32 Bestelako hornidurak

36 Azpi-ekoizkin, hondakin eta material berreskuratuak

33 Egiten ari diren ekoizkinak

Doikuntzak:

Oharrak:

Kontu hauek berdin mantentzen dira kontabilitate plan berrian, kontu zenbaki berekin: 30 "Salerosketakoak", 31 "Lehengaiak", 32 "Beste hornikuntza batzuk", 33 "Ekoizpen-bidean diren produktuak", 34 "Produktu erdibukatuak", 35 "Produktu bukatuak", 36 "Azpiproduktuak, hondarrak eta material berreskuratuak" Beraz, 2016ko irekiera idazpenean, saldo horiek kontu zenbaki berdinetara eramango dira. Ez da doikuntzarik egin behar.

39 Izakinen balio galeragatiko hornidura

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, azpitalde hauetako kontuak 2015eko kontu zenbaki berdinetan jasoko dira, izena pixka bat aldatuta: horniduraren ordeztasun, narriadura.

Salbuespen bakarra dago, 2015eko 390 "Salgaien balio galeragatiko hornidura" kontuaren saldoari dagokiona. Kontu horren saldoa zuzenean pasatuko da 398 "Salgai dauden aktiboen balio-narriadura" kontura (baliokidetasun taulan atzemandako errore baten ondorioz) Irekierako idazpena kontabilizatu ondoren, saldo hori bere lekura eramateko, zuzenketako idazpen bat egin behar da 398 "Salgai dauden aktiboen balio-narriadura" kontuaren saldoa murriztuz eta 390 "Salgaien balio-narriadura" kontuarena gehituz.



400 Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Urteko ekitaldia

Doikuntzak:

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 5. kasua "Pasibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 401 "Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Gastuen aurrekontu itxiak" kontuaren azpiko kontuetara, Urteko kontuak prestatzeko arauetako 6 "Balantzea" atalean ezarritako sailkapenaren arabera.

Hauek dira 401 kontuaren azpiko kontuak eta hauen artean banatuko da saldoa, kontabilizatutako obligazio bakoitza zein gastu kontzeptutara egotzi zen kontuan izanda:

- 4010 "Kudeaketa-eragiketak"
- 4011 "Ordaindu beharreko beste kontu batzuk"
- 4012 "Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin".
- 4013 "Bestelako zorrak"

401 Obligazio onartuengatiko hartzekodunak. Itxitako ekitaldiak

Doikuntzak:

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 5. kasua "Pasibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 401 "Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Gastuen aurrekontu itxiak" kontuaren azpiko kontuetara, Urteko kontuak prestatzeko arauetako 6 "Balantzea" atalean ezarritako sailkapenaren arabera.

Hauek dira 401 kontuaren azpiko kontuak eta hauen artean banatuko da saldoa, kontabilizatutako obligazio bakoitza zein gastu kontzeptutara egotzi zen kontuan izanda:

- 4010 "Kudeaketa-eragiketak"
- 4011 "Ordaindu beharreko beste kontu batzuk"
- 4012 "Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin".
- 4013 "Bestelako zorrak"



404 Sarrerren itzulketagatiko hartzekodunak

Doikuntzak:

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 5. kasua "Pasibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 418 "Kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuegatik hartzekodunak" kontuaren azpiko kontuetara, Urteko kontuak prestatzeko arauetako 6 "Balantzea" atalean ezarritako sailkapenaren arabera.

Hauek dira azpiko kontuak; horien artean banatuko da saldoa, itzulketa bakoitza zein sarrera kontzeptutara egotzi zen kontuan izanda:

- 4180 "Kudeaketa-eragiketak"
- 4181 "Ordaindu beharreko beste kontu batzuk"
- 4182 "Zorrek taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin".
- 4183 "Bestelako zorrak"

411 BEZagatiko hartzekodunak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 410 "Jasandako BEZarengatik hartzekodunak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

413 Aplikatu gabeko faturengatiko hartzekodunak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 5. kasua "Pasibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 413 "Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak" kontura.

Gero, kontuaren saldoa birsailkatu egin beharko da kontabilitate plan berriko 413 "Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatiko hartzekodunak" kontuaren azpiko kontu batean edo gehiagotan, Urteko kontuak prestatzeko arauetako 6 "Balantzea" atalean ezarritako sailkapenaren arabera. Hauek dira azpiko kontuak:

- 4130 "Kudeaketa-eragiketak"
- 4131 "Ordaindu beharreko beste kontu batzuk"
- 4132 "Zorrek taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin".
- 4133 "Bestelako zorrak"



419 Aurrekontuz kanpoko bestelako hartzekodunak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontuen saldoak zuzenean pasatuko dira aurreko ekitaldian zuten zenbaki eta izen bereko kontuetara. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

430 Eskubide onartuengatiko zordunak. Urteko ekitaldia

Doikuntzak:

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 431 "Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarrerren aurrekontu itxiak" kontuaren azpiko kontuetara, Urteko kontuak prestatzeko arauetako 6 "Balantzea" atalean ezarritako sailkapenaren arabera.

Hauek dira azpiko kontuak; horien artean banatuko da saldoa, kontabilizatutako eskubide bakoitza zein sarrera kontzeptutara egotzi zen kontuan izanda:

- 4310 "Kudeaketa-eragiketak"
- 4311 "Kobratu beharreko beste kontu batzuk"
- 4312 "Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan"
- 4313 "Beste inbertsio finantzario batzuk"

431 Eskubide onartuengatiko zordunak. Itxitako ekitaldiak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 431 "Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarrerren aurrekontu itxiak" kontuaren azpiko kontuetara, Urteko kontuak prestatzeko arauetako 6 "Balantzea" atalean ezarritako sailkapenaren arabera.

Hauek dira azpiko kontuak eta hauen artean banatuko da saldoa, kontabilizatutako eskubide bakoitza zein sarrera kontzeptutara egotzi zen kontuan izanda:

- 4310 "Kudeaketa-eragiketak"
- 4311 "Kobratu beharreko beste kontu batzuk"
- 4312 "Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan"
- 4313 "Beste inbertsio finantzario batzuk"



441 BEZagatiko zordunak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 440 "Jasanarazitako BEZarengatik zordunak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

443 Zordunak, okerreko ordainketengatik

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

Kontu honetan erregistratzen dira oker egindako aurrekontu ordainketen ondorioz sortzen diren saldo zordunak.

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 4499 "Okerreko ordainketengatik zordunak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

449 Bestelako zordunak. Aurrekontuz kanpokoak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontuen saldoak zuzenean pasatuko dira aurreko ekitaldian zuten zenbaki eta izen bereko kontuetara. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

470 Entitate publikoak, hainbat kontzepturengatik zordun

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontuen saldoak zuzenean pasatuko dira aurreko ekitaldian zuten zenbaki bereko kontuetara. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.



471 Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, zordun

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 4710 "Gizarte Segurantza" kontura. Saldoaren zati bat gizarte aurreikuspeneko beste entitate batzuen baldin bada, birsailkatu egingo da 4719 "Gizarte Aurreikuspeneko bestelako erakundeak, zordunak" kontuan.

472 Entitate publikoak, jasandako BEZa

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 472 "Ogasun Publikoa, jasandako BEZ" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

4750 Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 4750 "Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

4755 Ogasun Publikoa, bestelako kontzeptu fiskalengatiko hartzekodun

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontuen saldoak zuzenean pasatuko dira 4751 "Ogasun Publikoa, egindako atxikipenengatik hartzekodun" kontuaren azpiko kontuetara (6 zifrako kontuak). Saldo horren zati bat atxikipenei ez badagokie, zati hori 4759 "Ogasun Publikoa, bestelako kontzeptuengatik hartzekodun" kontuan birsailkatuko da. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.



476 Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodun

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontuen saldoak zuzenean pasatuko dira aurreko ekitaldian zuten zenbaki eta izen bereko azpikontuetara. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

477 Entitate publikoak, jasanarazitako BEZa

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 4770 "Jasanarazitako BEZa" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

478 Entitate publikoak, baliabideen bilketagatik hartzekodun

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontuen saldoak zuzenean pasatuko dira 414 "Erakunde publiko hartzekodunak baliabideak biltzeagatik" kontuaren azpiko kontuetara. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

480 Aurreratutako gastuak

Doikuntzak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko zenbaki bereko kontura, 480 "Gastu aurreratuak". Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

485 Aurreratutako sarrerak

Doikuntzak: Birsailkatzea

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 485 "Epe motzera aurreratutako sarrerak" kontura.

Aurreratutako sarreren saldoaren zati bat epe luzerako sarrerei badagokie, zati hori birsailkatu egin beharko da eta 186 "Epe luzera aurreratutako sarrerak" kontura eraman. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.



490 Kaudimengabeziatarako hornidura

Doikuntzak: Birsailkatzea

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 490 "Kredituen balio-narriadura" kontuaren azpiko 4900 "Kudeaketa-eragiketak" kontura.

Saldoaren zati bat kudeaketako eragiketena ez bada, zati hori 490 kontuaren azpiko gainerako kontuetan birsailkatuko da, Urteko kontuak prestatzeko arauetako 6 "Balantzea" atalean ezarritako sailkapenaren arabera.

500 Epe laburrerako obligazio eta bonuak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Ikus 271 "Balore negoziagarrien gastu finantzario geroratuak" kontua.

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 5000 "Kostu amortizatuko obligazioak eta bonuak" kontura.

Jaulkitako baloreak taldeko entitateek edo talde anitzekoek edo elkartuetakoek erosi baldin badituzte, birsailkatu egingo dira eta 5140 "Kostu amortizatuko balore negoziagarrietan adierazitako zorrak, taldeko erakundeak, talde anitzekoak eta elkartuak" kontura eramango dira. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

505 Epe laburrerako bestelako balore negoziagarrietan ordezkaturiko zorrak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 5090 "Kostu amortizatuko bestelako balore negoziagarriak" kontura.

Jaulkitako baloreak taldeko entitateek edo talde anitzekoek edo elkartuetakoek erosi baldin badituzte, birsailkatu egingo dira eta 5140 "Kostu amortizatuko balore negoziagarrietan adierazitako zorrak, taldeko erakundeak, talde anitzekoak eta elkartuak" kontura eramango dira. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.



506 Jesapenen eta antzeko bestelako jaulkipenen interesak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 5060 "Kostu amortizatuko obligazio eta bonuen epe motzeko interesak" kontura.

Behar izanez gero, saldo hori birsailkatu egingo da honako kontu hauetako batean edo gehiagotan, kasu bakoitzean dagokionaren arabera:

- 5062 "Jesapenen epe motzeko interesak diruzaintzako kostu amortizatuko eragiketengatik"
- 5065 "Kostu amortizatuko bestelako balore negoziagarrien epe motzeko interesak"
- 517 "Zorren epe motzeko interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin"

520 Epe laburrerako zorrak kreditu-entitateekin

Doikuntzak:

Oharrak:

Kontu hau badago kontabilitate plan berrian ere: 520 "Epe motzeko zorrak kreditu-erakundeekin" 2016ko irekiera idazpenean, 520 kontuaren azpiko kontu guztiek 2015eko itxieran dituzten saldoak 5200 "Epe motzeko zorrak kreditu-erakundeekin" kontura pasatuko dira.

Beraz, 5200 kontuaren saldoan diruzaintzako desfase iragankorrak estaltzeko zorrik baldin badago, zor horiek 5210 "Diruzaintzako eragiketen ondoriozko zorrak" kontuan birsailkatu beharko dira. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

521 Jasotako aurrerakinak eta epe laburrerako zorrak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 529 "Epe motzeko beste zor batzuk" kontura.

Saldoan sartzen badira taldeko entitateekin edo talde anitzekoekin edo elkartuekin egindako zorrak, zenbateko hori birsailkatu egin beharko da 519 "Taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin epe motzeko bestelako zorrak" kontuan. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.



526 Zorren epe laburrerako interesak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 527 "Kreditu-erakundeekin dauden zorren epe motzeko interesak" kontura.

Zorra ez baldin bada kreditu-erakunde batekin egindakoa, saldoa birsailkatu egin beharko da, eta kontu hauetako batera pasatu, kasu bakoitzean dagokionaren arabera:

- 517 "Zorren epe motzeko interesak taldeko erakundeekin, talde anitzekin eta elkartuekin"
- 528 "Bestelako zorren epe motzeko interesak"

530 Tokiko sektore publikoko entitateetako epe laburrerako partaidetzak

Doikuntzak:

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 5301 "Epe motzeko partaidetzak taldeko erakundeetan. Merkataritza-sozietateetan" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

532 Tokiko sektore publikoko entitateen epe laburrerako errenta finkoko baloreak

Doikuntzak: Hainbat

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 5320 "Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak" kontura.

Balore negoziagarri batzuek merkatu aktiboa baldin badute, eta epe laburrean diru bihurtzeko asmoarekin eskuratu badira (ez baldin badira erosi gero prezio finkoan edo hasierako prezioa gehi mailegu emailearen errentagarritasun normalean saltzeko akordioarekin), balore horien saldoa birsailkatu egin beharko da 5322 "Taldeen eta talde anitzean dauden erakundeen eta elkartuen arrazoizko balioko zorra adierazten duten baloreak, emaitzetan aldaketak izanda" kontuan.

Era berean, saldo horretan sartutako balore batzuk mugaegunera arte mantentzeko asmorik ez badago, eta epe laburrean diru bihurtzeko asmorik ere ez badago, balore horien saldoa birsailkatu egin beharko da 5321 "Taldeen eta talde anitzean dauden erakundeen eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak" kontuan.

5321 eta 5322 azpikontuetan sartzen diren baloreak, 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko baliorearen arabera baloratu beharko dira.



540 Kapitalean egindako aldi baterako finantza inbertsioak

Doikuntzak: Hainbat

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 5400 "Epe motzeko inbertsioak ondare-tresna salgarrietan" kontura.

Talde anitzeko entitateetako edo entitate elkartuetako partaidetzarik baldin badago, partaidetza horiei dagokien saldoa birsailkatu egin beharko da 5311 "Epe motzeko partaidetzak talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan. Merkataritza-sozietateetan eta sozietate kooperatiboetan" kontuan.

Era berean, merkatu aktibo batean negoziatzen den partaidetzarik badago, eta epe laburrean diru bihurtzeko asmoarekin erosi badira (salmenta prezioari buruzko akordiorik gabe), partaidetza horien saldoa birsailkatu egin beharko da eta 5401 "Emaizetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko ondare-tresnetako inbertsioak" kontura pasatu.

Azkenean 5400 eta 5401 azpikontuetan sailkatzen diren partaidetzak, "aktibo finantzario salgarrien" edo "emaitza kontuaren bitartez arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioen" kategorian sailkatu direlako, hurrenez hurren, 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioaren arabera baloratuko dira.

541 Epe laburrerako errenta finkoko baloreak

Doikuntzak: Hainbat

Ikus dokumentu honetako "Kasu partikularrak" ataleko 4. kasua "Aktibo finantzarioak"

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 5410 "Epemugara arte mantendutako epe motzeko zorra adierazten duten baloreak" kontura.

Talde anitzeko entitateek edo entitate elkartuek jaulkitako balorerik baldin badago, horien saldoa birsailkatu eta 5320 "Taldekoko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzeko zorrak adierazten dituzten baloreak, mugaegunera arte mantendutakoak" kontura aldatuko da.

Era berean, balore negoziagarri batzuek merkatu aktiboa baldin badute eta epe laburrean diru bihurtzeko asmoarekin eskuratu badira (ez baldin badira erosi gero prezio finkoan edo hasierako prezioa gehi mailegu emailearen errentagarritasun normalean saltzeko akordioarekin), balore horien saldoa birsailkatu egin beharko da 5412 "Emaizetan aldaketak dituen arrazoizko balioko epe motzeko zorra adierazten duten baloreak" kontuan edo 5322 " Taldekoko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten baloreak, arrazoizko balioan, emaitzetan aldaketak izanda " kontuan, entitate jaulkitzailea talde anitzekoa edo elkartua baldin bada.

Azkenik, saldo horretan sartutako balore batzuk mugaegunera arte mantentzeko asmorik ez badago, eta epe laburrean diru bihurtzeko asmorik ere ez badago, balore horien saldoa birsailkatu egin beharko da 5411 "Epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak" kontuan edo 5321 "Taldeen eta talde anitzean dauden erakundeetan eta elkartuen epe motzeko zorra adierazten duten balore salgarriak" kontuan, entitate jaulkitzailea talde anitzekoa edo elkartua baldin bada.

5321, 5322, 5411 eta 5412 azpikontuetan sartzen diren baloreak, 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioaren arabera baloratu beharko dira.



542 Epe laburrera emandako aurrerakin eta kredituak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 5429 "Epe motzeko bestelako kredituak" kontura.

Behar izanez gero, saldo hori birsailkatu egingo da kontabilitate plan berriko kontu hauetako batean, kasu bakoitzean dagokionaren arabera:

- 533 "Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe motzeko kredituak".
- 544 "Langileei emandako epe motzeko kredituak".
- 5420 "Ibilgetua inorenganatzearagatik epe motzeko kredituak"

546 Bestelako aldi baterako finantza inbertsioen epe laburrerako interesak

Doikuntzak: Birsailkatzea

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 546 "Zorra adierazten duten baloreen epe motzeko interesak" kontura.

Taldeko entitateetan, talde anitzekoetan edo elkartuetan egindako inbertsioen interesak baldin badira, horiei dagokien zatia 535 "Taldeko eta talde anitzeko erakundeetan eta elkartuetan egindako inbertsio finantzarioen epe motzeko interesak" kontuan birsailkatuko da.

Era berean, emandako kredituen interesik baldin badago, horiei dagokien zatia 547 "Kredituen epe motzeko interesak" kontuan birsailkatuko da.

548 Epe laburrerako ezarpenak

Doikuntzak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 548 "Epe motzeko ezarpenak" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.

549 Epe laburrerako akzioen gainean egin gabeko ordainketak

Doikuntzak: Birsailkatzea

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da 549 "Ondare garbiko partaidetzen gainean egiteko dauden epe motzeko ordainketak" kontuaren azpiko 5490 "Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioenak" kontura.

Taldeko entitateetako edo talde anitzekoetako edo elkartuetako akzioen gaineko ordainketarik baldin badago, horiei dagokien zatia 539 "Taldeko erakundeetako, talde anitzekoetako eta elkartuetako epe motzeko partaidetzen gainean egiteko dauden ordainketak" kontuan birsailkatuko da.



555 Aplikatu gabeko sarrerak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontuen saldoak zuzenean pasatuko dira 554 "Aplikatzeko dauden kobrantzak" kontuaren azpiko kontuetara. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

557 Aplikatu gabeko ordainketak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontuen saldoak zuzenean pasatuko dira 555 "Aplikatzeko dauden ordainketak" kontuaren azpiko kontuetara. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

560 Epe laburrera jasotako fidantzak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 560 "Epe motzera jasotako fidantzak" kontura.

Saldoan sartzen badira taldeko entitateek edo talde anitzekoek edo elkartuek emandako fidantzak, dagokien saldoa birsailkatu egin beharko da 515 "Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe motzera jasotako fidantzak" kontuan. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

561 Epe laburrera jasotako gordailuak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 561 "Epe motzera jasotako gordailuak" kontura.

Saldoan sartzen badira taldeko entitateek edo talde anitzekoek edo elkartuek jarritako gordailuak, dagokien saldoa birsailkatu egin beharko da 516 "Taldeko erakundeetatik, talde anitzetatik eta elkartuetatik epe motzera jasotako gordailuak" kontuan. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.



565 Epe laburrera eratutako fidantzak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 565 "Epe motzera eratutako fidantzak" kontura.

Saldoan sartzen badira taldeko entitateetan edo talde anitzekoetan edo elkartuetan jarritako fidantzak, dagokien saldoa birsailkatu egin beharko da 537 "Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako fidantzak" kontuan. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

566 Epe laburrera eratutako gordailuak

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 566 "Epe motzera eratutako gordailuak" kontura.

Saldoan sartzen badira taldeko entitateetan edo talde anitzekoetan edo elkartuetan jarritako gordailuak, dagokien saldoa birsailkatu egin beharko da 538 "Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan epe motzera eratutako gordailuak" kontuan. Bestela, ez da doikuntzarik egin behar.

570 Kutxa

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 570 "Kutxa operatiboa" kontura. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.

572 Bankuak eta kreditu-erakundeak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen azpiko kontuen saldoak zuzenean pasatuko dira 571 "Bankuak eta kreditu-erakundeak. Kontu operatiboak" kontuaren azpiko kontuetara. Gero, ez da beste doikuntzarik egin behar.



578 Diruzaintzako barne-mugimenduak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 556 "Diruzaintzako barne-mugimenduak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

579 Formalizazioa

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 557 "Formalizazioa" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

584 Aurrez ordaindutako interesak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 567 "Aurrez ordaindutako gastu finantzarioak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.

585 Aurrez kobratutako interesak

Doikuntzak:

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 568 "Aurrez kobratutako sarrera finantzarioak" kontura. Gero, ez da doikuntzarik egin behar.



597 Epe laburrerako balore negoziagarrien balio galeragatiko hornidura

Doikuntzak: Hainbat

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean, kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 597 "Epe motzeko zorra adierazten duten baloreen balio-narriadura" kontuaren azpiko 5970 "Mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura" kontura.

Gero, 5970 kontuaren saldoa birsailkatu egin beharko da, irizpide hauen arabera:

- Taldeko entitateen, talde anitzekoen edo elkartuen mugaegunera arte mantendutako balore negoziagarrien balio zuzenketarik baldin badago, zuzenketa horiei dagokien zenbatekoa 5950 "Taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan mugaegunera arte mantendutako baloreen balio-narriadura" kontuan birsailkatu beharko da.
- Zorra adierazten duten baloreak "aktibo finantzario salgarri" gisa sailkatzekoak direnean (eta, beraz, arrazoizko balioan baloratu beharrekoak), balore horien balio galeragatik egindako horniduraren zenbatekoari baja emango zaio, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontua hartuta kontrapartida gisa.
- Sozietateen kapitaleko partaidetzak eta "taldeko entitateen, talde anitzekoen eta entitate elkartuen ondarean egindako inbertsio" gisa sailkatzekoak direnean, partaidetza horien galera berreskuragarriengatik egindako balio zuzenketen saldoa kontabilitate plan berriko 5941 "Taldean, talde anitzean eta elkartuta dauden merkataritza-sozietateetako eta sozietate kooperatibetako epe motzeko partaidetzen balio-narriadura" azpikontuan birsailkatuko da.
- Sozietateen kapitaleko partaidetzak eta "emaitza kontuaren bitartez arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzario" edo "aktibo finantzario salgarri" gisa sailkatzekoak direnean (eta, beraz, arrazoizko balioan baloratu beharrekoak), balore horien balio galeragatik egindako horniduraren zenbatekoari baja emango zaio, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontua hartuta kontrapartida gisa.
- Azkenik, "aktibo finantzario salgarri" gisa sailkatutako kapital partaidetzak izan arren, kostu balioan baloratu behar direnean arrazoizko baliorik ez dagoelako, partaidetza horien galera berreskuragarriengatik egindako balio zuzenketen saldoari baja emango zaio, partaidetza horiek jasotzen dituen kontuaren kontra.

598 Epe laburrerako kredituen kaudimengabeziatarako hornidura

Doikuntzak: Birsailkatzea

Oharrak:

2016ko irekiera idazpenean kontu honen saldoa zuzenean pasatuko da kontabilitate plan berriko 598 "Epe motzeko kredituen eta bestelako inbertsio finantzarioen balio-narriadura" kontuaren azpiko 5980 "Epe motzeko kredituen balio-narriadura" kontura.

Saldoren zati bat taldeko entitateei, talde anitzekoei edo elkartuei emandako kredituei badagokie, zati hori birsailkatu egin beharko da eta 5960 "Taldeko erakundeei, talde anitzekoei eta elkartuei emandako epe motzeko kredituen balio-narriadura" kontura eraman.



KASU PARTIKULARRAK

Irekiera prozesuan eragin berezia izan lezaketen ondare elementu eta transakzio edo egitate ekonomiko batzuk banan-banan aztertuko ditugu jarraian.

1. Erabilera orokorrerako inbertsioak.

86/2015 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorreko 2. paragrafoak ezartzen du 2016ko urtarrilaren 1ean erregistratuta geratu behar dutela kontabilitate plan berrian sartzen diren aktibo eta pasibo guztiak, horien artean, erabilera orokor ez-produktiborako jartzen diren azpiegituretan, ondasunetan eta ondare historikoan egindako inbertsioak. Hala ere, onartzen da ez dela beharrezkoa izango inbertsio horiek aktiboan sartzea, modu fidagarrian ezin badira baloratu.

Balio fidagarria erabaki badaiteke, 2015eko abenduaren 31n aktiboan sartuta ez zeuden era honetako inbertsioei alta eman beharko zaie 21 "Ibilgetu materialak" azpitaldean dagokien kontuan, 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioan, salbu eta zehatz badaiteke jatorrizko eskuratze prezioari edo produkzio kostuari eta gero aktiboratzeko moduko zenbatekoei dagokien kontabilitate balioa, kasu horretan kontabilitate balio hori gailenduko baita.

Kontabilitatean alta emateko, partida bikoitzeko doikuntza idazpena egingo da, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontuan abonatuta.

Erabilera orokorrerako inbertsioak 2015eko abenduaren 31n kontabilizatuta badaude 20 "Erabilera orokor ez produktibora bideraturiko azpiegitura, ondasunak eta ondare historikoa" azpitaldean, oraindik amaitu gabe edo funtzionamenduan jarri gabe daudelako, birsailkatu egin beharko dira eta 23 "Ekoizpen-bidean dauden ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetakoko inbertsioak" azpitaldean dagokien kontuetara pasatu (SAREKOn erabiltzaileentzat birsailkatze hori eginda egongo da 2016ko irekiera idazpenean).

2. Errentamendu finantzarioa edo leasing-a

Leasing edo errentamendu finantzarioan eskuratutako ondasunak ibilgetu material edo ondasun higiezinetakoko inbertsio gisa kalifikatuko dira kontabilitate plan berrian; plan zaharrean, aldiz, ibilgetu inmateriallean sartzen ziren. Kontu horiek birsailkatzeak ez du eraginik izango aurreko ekitaldietako emaitzetan.

2004ko KPPOk aukera ematen zuen leasing kontratuetako gastu finantzarioak aktiboan sartzeko, pasibo osoaren (kapitala gehi interesak) eta ondasunaren eskurako balioaren arteko diferentziagatik. Kontabilitate plan berriak ordaintzeko geratzen den zorra bakarrik uzten du erregistratzen, kostu amortizatuaren irizpidea aplikatuz; beraz, ezereztu egin behar da 2015eko abenduaren 31ko itxierako idazpenean hainbat ekitalditan banatzeko gastu gisa jasota dagoen zifra, eta aldi berean gutxitu idazpen horretan errentamendu finantzarioko eragiketarengatik epe laburreko eta luzeko zor gisa kontabilizatutako saldoa. Aktiboan sartutako gastu horiek ezerezteak ez du eraginik izango, beraz, ondare garbian.

Era berean, amortizazio metatua (itxierako idazpenean ibilgetu inmaterialaren amortizazio gisa kontabilizatua) birsailkatu egin beharko da, eta irekierako idazpenean ibilgetu materialaren edo ondasun higiezinetakoko inbertsioen amortizaziora pasatu.



Bestalde, entitateak berrikusi egin beharko ditu 2015eko abenduaren 31n dauden errentamendu akordio guztiak, litekeena delako horietakoren bat errentamendu finantzario gisa tratatuta ez egotea (esate baterako, erosteko aukera ez dagoelako kontratuz itunduta), baina araudi berriaren arabera tratamendu hori eman behar izatea. Kasu horretan, doikuntza bat egin beharko da, kontabilitatean zuzen jasota gera dadin, hau da, 2016ko urtarrilaren 1ean hasitako errentamendu finantzario gisa kontabilizatuko da errentan hartutako ondasuna (eta dagokion pasiboa, zenbateko berarekin) bi balio hauen arteko txikiena hartuta: ondasunaren arrazoiko balioa (2016ko urtarrilaren 1ean) eta errentatzailearen hitzartutako ordainketen balio eguneratua (2016ko urtarrilaren 1ean) 6 "Errentamenduak eta antzeko eragiketak" aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritakoaren arabera.

3. Ibilgetze materialak.

Lehen 22 "Ibilgetze materialak" azpitaldean erregistratzen ziren ibilgetu materialak, hainbat epigrafetan erregistra daitezke kontabilitate plan berrian, aintzatespen- eta balioespen-arauetan ezarritakoaren arabera. Ibilgetu horiek hauetako kategoriaren batean sartu ahal izango dira:

a) Ibilgetu materialak.

2016an azpitalde berri honetan (21 "Ibilgetu materialak") sartzen diren elementuak lehengo kontu zaharretatik azpitalde berrian dagokien kontuan birsailkatuko dira (*SAREKOren erabiltzaileentzat, birsailkatzearen zati bat zuzenean egingo da irekierako idazpenean, baliokidetasun taularen arabera*). Era berean, ibilgetu materialaren amortizazio metatuaren saldoa ere birsailkatu eta banakatu egin beharko da, ondasunaren izaeraren arabera kasu bakoitzean dagokion amortizazio metatuaren azpikontura pasatzeko.

21 azpitaldean sartzen diren ibilgetu materialeko ondasunen balio galeragatiko horniduraren saldoa ere birsailkatu egingo da eta 291 "Ibilgetu materialaren balio-narriadura" kontura eraman, azpiko kontuen bidez.

2015eko abenduaren 31n egokitzapen, eraikuntza edo muntaia bidean zeuden ondare elementuak, 22 azpitalde zaharrean kontabilizatuta zeudenak, kontuen garapena kontuan izanda, 23 "Ekoizpen-bidean diren ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetakoko inbertsioak" azpitalde berrian birsailkatu beharko dira, izaeraren arabera ezarritako banakapenaren arabera.

b) Ondasun higiezinetakoko inbertsioak.

4 "Ondasun higiezinetakoko inbertsioak" aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, errentak, plusbalioak edo biak lortzeko mantentzen diren ondasun higiezinak dira (lurra edo eraikinak), ez ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo horniduran erabiltzeko mantentzen direnak, ezta administrazio xedeetarako ere, edo eragiketen barruan saltzeko mantentzen direnak ere. Aintzatespen- eta balioespen-arau horrek ondasun higiezinak sailkatzeko hondar klausula bat du; horren arabera, ezin baldin bada egiaztatu higiezin jakin bat ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko edo administrazio xedeetarako edo eragiketen barruan saltzeko erosi zela, ondasun higiezinetakoko inbertsio gisa sailkatu beharko da.

Entitateak horrela kontsideratzen dituen ondasun higiezinak 2016ko kontabilitatea irekitzean 22 "Ondasun higiezinetakoko inbertsioak" azpimultzoan birsailkatu beharko dira, eta ondasun horien amortizazio metatua eta balio galeragatik egindako hornidura 282 "Ondasun higiezinetakoko inbertsioen amortizazio metatua" eta 292 "Ondasun higiezinetakoko inbertsioen balio-narriadura" kontuetara aldatu beharko dira, hurrenez hurren, azpiko kontuen bitartez.

2015eko abenduaren 31n egokitzapen, eraikuntza edo muntaia bidean zeuden ondare elementuak, ondasun higiezinetakoko inbertsioetat jotzen badira, 23 "Ekoizpen-bidean diren ibilgetu materialak eta ondasun higiezinetakoko inbertsioak" azpitalde berrian birsailkatu beharko dira,



izaeraren arabera ezarritako banakapenaren arabera.

c) Salgai dauden aktiboak.

7 "Salgai dauden aktiboak" aintzatespen- eta balioespen-arauak ematen duen definizioaren arabera, aktibo ez-finantzarioak dira (lurzoruaren ondare publikokoak alde batera utzita), hasieran ez-korrontetzat sailkatutakoak, kontabilitate balioa salmentaren bidez berreskuratzeko asmoarekin, ez erabileraren bitartez.

Entitateak begiratu beharko du ibilgetu ez-finantzarioan era horretako aktiborik duen, alegia, aurreko paragrafoan aipatutako arauaren arabera salgai dauden aktibo gisa sailkatu behar den aktiborik duen. Baldin badu, lehenik, doikuntza bat egin beharko du salgai dauden aktiboen kategorian sartzen dituen aktiboei zuzkitutako amortizazio metatua kentzeko, halakorik baldin badago. Doikuntza hori izango da amortizazio metatuaren zenbatekoari baja ematea bai amortizazio metatuaren kontuan eta bai izaeraren arabera dagokion aktiboko kontuan. Ondasunaren balioa doitu ondoren, aktiboko kontuen eta balio galeragatiko hornidura kontuen saldoak birsailkatu beharko dira eta 380 "Salgai dauden aktiboak" kontura eta 398 "Salgai dauden aktiboen balio-narriadura" kontura pasatu, hurrenez hurren.

Ibilgetu materialeko ondasunen bat hartu bada adskripzioan edo doan erabiltzeko lagata, ondasunaren bizitza ekonomikoa baino epe laburragorako, 19 "Ondasunen eta eskubideen erabileraren esleipenak eta beste doako lagapen batzuk" aintzatespen- eta balioespen-arauaren 2. apartatuan ezarritakoaren arabera, entitateak (onuradunak) ondasun hori birsailkatu beharko du 20 "Ibilgetu ukiezinak" azpitaldean dagokion kontuan, eta amortizazio metaturik badu, 2809 "Bestelako ibilgetu ukiezinaren amortizazio metatua" kontura eraman beharko du.

2015eko itxiera idazpeneko ibilgetu materialeko kontuetan aurrerakinik baldin badago, aurrerakin horiek birsailkatu egin beharko dira 2390 "Ibilgetu materialetarako aurrerakinak" edo 2391 "Ondasun higiezinak inbertsioetarako aurrerakinak" kontuan, kasuan kasu.

4. Aktibo finantzarioak.

1. Aktibo finantzarioak birsailkatzea.

Kontabilitate plan berriak ikuspegi berritzaile batetik kategorizatzen ditu aktibo finantzarioak: plan zaharrean izaeraren arabera tratatzen ziren aktibo finantzarioak eta erregimen espezifiko aplikatzen zitzaizen errenta finkoko balore negoziagarriari (obligazio, bonu eta horrelakoei), errenta aldakorreko balore negoziagarriari (akzioei eta antzekoei), eta aurrekontuko edo aurrekontuz kanpoko zordunei; 2015eko TAKPPOk, berriz, aktibo finantzarioak hainbat kategoriatan banatzen ditu, baina izaeran oinarritu beharrean, entitateak emango dien kudeaketa hartzen du kontuan.

Aktibo finantzarioen kategoria bakoitzari kontabilitateko tratamendu espezifiko bat aplikatuko zaio, bereziki, balorazio irizpide berezi bat. Adibide gisa, entitateak obligazioak erosten baditu, kategoria batean edo bestean sartuko ditu, eta, beraz era batean edo bestean erregistratu eta baloratuko ditu, entitateak obligazio horiekin egin nahi duenaren arabera: epe laburrean saldu eta irabazia lortu, mugaegunera arte mantendu edo denbora batean mantendu eta gero salgarri eduki.

Entitateak aktibo finantzarioak sailkatzen dituzenean 8 "Aktibo finantzarioak" aintzatespen- eta balioespen-arauak aktiboak baloratzeko ezartzen dituen bost kategorietan, aktibo bakoitzari kontu eta azpikontu berrietan esleitu behar zaion zenbatekoa zehaztu beharko du, 2015eko abenduaren 31ko saldoan oinarrituta.



Prozesu bera egin beharko du hornidurekin ere, hau da, balio galera edo kaudimengabeziatarako hornidurak kontu berrietan birsailkatu beharko dira izaeraren arabera, kontuan izanda plan zaharreko balio galeragatik hornidura batzuek ez dutela kontu baliokiderik plan berrian (esate baterako, taldekoak, talde anitzekoak edo elkartuak ez diren sozietateen ondare garbian dauzkan partaidetzen narriadura jasotzen duten kontuek) eta, beraz, 2004ko planeko kontu horien saldoei baja eman beharko zaiela irekiera prozesuan.

Gainera, aurrekontuko zordunak eta antzekoak direnean, araudi berriak sailkapen osagarri bat ezartzen du aktibo horiek eta dagozkien balio narriadurak entitatearen Balantzean aurkezteko, saldo horiek lau azpikontutan banatuta:

- Kudeaketa-eragiketak.
- Kobratu beharreko beste kontu batzuk.
- Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan
- Beste inbertsio finantzario batzuk.

Irekiera idazpenari dagokionez, desagregazio horrek bi kontu hauetan sartu behar diren saldoak bakarrik ukituko ditu: 431 "Aintzatetsitako eskubideengatik zordunak. Sarreraren aurrekontu itxiak" et 490 "Kredituen balio-narriadura" (SAREKO aplikazioak 4310 kontuaren saldoa banakatuko du irekierako idazpenean bertan).

Desagregazioa egiteko irizpidea aktibo finantzarioaren aurrekontu egozpena da (oraingoa edo etorkizuneko), Urteko kontuak prestatzeko 6. arauan, Balantzeari buruzkoan, ezarritakoaren arabera. Arauak dio:

a) *Kudeaketa-eragiketak*. Gainerako multzoetan sartzen ez diren aurrekontu-zordun guztiak sartuko dira hemen eta, aurrekontuzkoak ez diren zordunak ere bai, epemugan partida horretan sartutako aurrekontu-zordun bihurtzen badira.

Nolanahi ere, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo erositako aktiboetatik eratorritako aurrekontu-zordunak eta aurrekontuzkoak ez direnak ere sartuko dira.

b) *Kobratu beharreko beste kontu batzuk*. 9 "Pasibo finantzarioak" kapitulutik eratorritako aurrekontu-zordunak jasoko ditu.

c) *Inbertsio finantzarioak taldeko erakundeetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan*.

Hemen sartzen dira taldeko entitateekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin sortzen diren aktibo finantzarioak, 8 "Aktibo finantzarioak" kapitulutik eratorritakoak, eta 5 "Ondare sarrerak" kapituluko sarrera finantzarioetatik eratorritakoak eta 6 "Inbertsio erreala besterenganatzea" kapitulutik sortutakoak, beste entitate batzuentzat eraikitako edo eskuratutako ondasunak ez badira, aurrekontu-zordunen nahiz aurrekontuz kanpoko zordunen kontuetan egon.

d) *Beste inbertsio finantzario batzuk*. Hemen sartzen dira taldekoak, talde anitzekoak eta elkartuak **ez** diren entitateekin sortzen diren aktibo finantzarioak, 8 "Aktibo finantzarioak" kapitulutik eratorritakoak, eta 5 "Ondare sarrerak" kapituluko sarrera finantzarioetatik eratorritakoak eta 6 "Inbertsio erreala besterenganatzea" kapitulutik sortutakoak, beste entitate batzuentzat eraikitako edo eskuratutako ondasunak ez badira, aurrekontu-zordunen nahiz aurrekontuz kanpoko zordunen kontuetan egon.



2. Arrazoizko balioan baloratu behar diren aktibo finantzarioen balio doikuntza.

Azkenik, lehenengo xedapen iragankorrek agintzen du ondare elementu guztiak 2015eko ekitaldia ixtean duten kontabilitate balioaren arabera baloratuko direla, baina salbuespen gisa «Arrazoizko balioaren arabera baloratutako aktibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituztenak» eta «Arrazoizko balioaren arabera baloratutako pasibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituztenak» kategorietan sailkatzen diren aktibo eta pasibo finantzarioak, eta «Aktibo finantzario salgarriak» kategorian sailkatzen diren aktibo finantzarioak, 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioaren arabera baloratuko direla

«Arrazoizko balioaren arabera baloratutako aktibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituztenak» saileko aktibo finantzarioak, kontabilitatea irekitzen den egunean duten arrazoizko balioan baloratuko dira. Balio horren eta 2015eko abenduaren 31ko kontabilitate balioaren arteko diferentzia 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura eramango da, horretarako behar den idazpena eginda.

"Aktibo finantzario salgarrien" saileko aktibo finantzarioak ere kontabilitatea irekitzen den egunean duten arrazoizko balioan baloratuko dira. Sortzen diren diferentziak 133 "Aktibo finantzario salgarrien balorazio-doikuntzak" kontura edo 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura egotziko dira, kasuan kasu, dagokion idazpena eginda.

Aipatutako kategorian horietan sailkatzen diren tresna finantzario batzuk arrazoizko balioan erregistratzeko prozesuan, kontuan izan behar da, halaber, 8 "Aktibo finantzarioak" aintzatespen- eta balioespen-arauak plan berrirako ezarritako irizpideak aplikatu behar direla aktibo finantzario horiek baloratzeko, eta, hala dagokionean, narriadura kalkulatzeko, guztia 2016ko urtarrilaren 1eko datarekin.

Ikus dezagun adibide bat, ilustrazio moduan:

A udalak 2015eko abenduaren 31ko balantzean partaidetza finantzario bat du merkataritza sozietate batean, aldi baterako finantza inbertsio gisa (540 "Kapitalean egindako aldi baterako finantza inbertsioak" kontuan). Partaidetza 1.000 eurokoa da (eskuratze-prezioa, 20 € akzioko).

Data horretan bertan, kotizazioa 18 €-koa da akzioko, eta laugarren hiru hilabetean 15 €-koa akzioko. 2004ko kontabilitate planeko balorazio arauak aplikatuz, balio galeragatiko hornidura bat zuzkitu du udalak (597 "Epe laburrerako balore negoziagarrien balio galeragatiko hornidura" kontua). 250 eurokoa da hornidura $[(20 - 15) \times 50]$.

2016ko kontabilitatea irekitzean, "emaitza kontuaren bitartez arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioen" kategorian sailkatu du inbertsio hori entitateak, ekitaldian zehar saltzeko asmoa duelako, eta partaidetza horiek merkatu aktibo batean negoziatzen dira.

Kontuan izanda plan berrian ez dagoela partaidetza horien balio narriadura jasotzeko konturik, baja eman behar zaio saldo horri 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontuaren kontra, hau da, kontu horren hartzekoa 250 euroan gehituta.

Bestalde, partaidetza arrazoizko balioan erregistratuta uzteko, 5401 "Emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioaren ondare-tresnetako inbertsioak" kontuak balio hori islatu behar du saldoan, eta, horretarako, traspasatutako kontabilitate balioa konparatu behar da kontabilitate irekitzen den datan duen arrazoizko balioarekin. Adibidean emandako datuen arabera, partaidetzaren kontabilitate balioa 1.000 €-koa da (balio galeragatiko hornidura ezabatu eta gero) eta arrazoizko balioa, berriz, 2016ko urtarrilaren 1eko kotizazioa da (kasu honetan, 18 € akzioko). Bi balioen arteko diferentziarekin (1.000 € - 900 €) doikuntza bat egin behar da kontabilitatean, idazpen baten bidez: 100 € kargatuz 120 kontuan eta beste horrenbeste abonatuz 5401 kontuan).



5. Pasibo finantzarioak

1. Pasibo finantzarioak birsailkatzea.

Aktibo finantzarioekin gertatzen den bezala, plan berriak beste era batean aurkezten eta sailkatzen ditu pasibo finantzarioak, era mugatuagoan, bi kategoria bakarrik bereizten dituelako baloratzeko: kostu amortizatuko pasibo finantzarioak eta arrazoizko balioko pasibo finantzarioak. Kasu honetan ere, kontabilitatea irekitzean entitateak berriro sailkatu beharko ditu aurreko ekitaldiko itxieran kontabilizatuta dauzkan pasibo finantzarioak. Hala ere, ia denak kostu amortizatuko pasibo finantzarioetan sartuko dira, eta bigarren sailera deribatu finantzarioak bakarrik joango dira, salbuespen gutxi batzuekin.

Entitateak pasibo finantzarioak sailkatzen dituenean 9 "Pasibo finantzarioak" aintzatespen- eta balioespen-arauak pasiboak baloratzeko ezartzen dituen bi kategorietan, horietako bakoitzari kontu eta azpikontu berrietan esleitu behar zaion zenbatekoa zehaztu beharko du, 2015eko abenduaren 31ko saldoan oinarrituta.

Gainera, aurrekontuko hartzekodunak eta antzekoak direnean, araudi berriak sailkapen osagarri bat ezartzen du pasibo horiek entitatearen balantzean aurkezteko, saldo horiek lau azpikontutan banatuta:

- Kudeaketa-eragiketak.
- Ordaindu beharreko beste kontu batzuk.
- Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin.
- Bestelako zorrak.

Irekiera idazpenari dagokionez, desagregazio horrek hiru kontu hauetan sartu behar diren saldoak bakarrik ukituko ditu: 401 "Aintzatetsitako obligazioengatik hartzekodunak. Gastuen aurrekontu itxiak", 413 "Aurrekontuan aplikatzeko dauden eragiketengatik hartzekodunak" eta 418 "Kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuentzat hartzekodunak". (SAREKO aplikazioak 401 eta 418 kontuen saldoa banakatuko du irekierako idazpenean bertan).

Desagregazioa egiteko irizpidea pasibo finantzarioaren aurrekontu egozpena da (oraingoa edo etorkizuneko), Urteko kontuak prestatzeko 6. arauan, Balantzeari buruzkoan, ezarritakoaren arabera. Arauak dio:

a) *Kudeaketa-eragiketak*. Gainerako multzoetan sartzan ez diren aurrekontu-hartzekodun guztiak sartzan dira hemen, eta, aurrekontuzkoak ez diren hartzekodun mugaeguneratuak ere bai, aurrekontuari egozteko badaude eta multzo honetan sartzekoak badira.

Nolanahi ere, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo erositako aktiboetatik eratorritako aurrekontu-hartzekodunak eta aurrekontuzkoak ez direnak ere sartuko dira.

b) *Ordaindu beharreko beste kontu batzuk*. Gastuen aurrekontuko 8 "Aktibo finantzarioak" kapitulutik eratorritako aurrekontu-hartzekodunak bilduko ditu.

c) *Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin*. Hemen sartzan dira taldeko entitateekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin sortzen diren pasibo finantzarioak, 9 "Pasibo finantzarioak" kapitulutik eratorritakoak, eta 3 "Gastu finantzarioak" kapitulutik eratorritakoak eta 6 "Inbertsio errealak" kapitulutik sortutakoak, beste entitate batzuentzat eraikitako edo eskuratutako ondasunak ez badira, aurrekontu-hartzekodunen nahiz aurrekontuz kanpoko hartzekodunen kontuetan egon.



d) *Bestelako zorrak*. Hemen sartzen dira taldeko entitateekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin sortutakoak **ez** diren pasibo finantzarioak, 9 "Pasibo finantzarioak" kapitulutik eratorritakoak, eta 3 "Gastu finantzarioak" kapitulutik eratorritakoak eta 6 "Inbertsio errealak" kapitulutik sortutakoak, beste entitate batzuentzat eraikitako edo eskuratutako ondasunak ez badira, aurrekontu-hartzekodunen nahiz aurrekontuz kanpoko hartzekodunen kontuetan egon.

418 "Kredituak itzultzeagatik eta beste minorazio batzuegatik hartzekodunak" kontuaren kasuan, desagregazioa lau zifrako azpikontu berdinetan egingo da eduki honekin:

a) *Kudeaketa-eragiketak*. Hemen sartzen dira gainerako multzoetan sartzen ez diren aurrekontuko sarrerak itzultzeagatik hartzekodun guztiak.

Nolanahi ere, beste erakunde batzuentzat eraikitako edo erositako aktiboetatik eratorritako aurrekontuko sarrerak itzultzeagatik hartzekodunak ere sartuko dira.

b) *Ordaindu beharreko beste kontu batzuk*. 8 "Aktibo finantzarioak" kapitulutik eratorritako aurrekontuko sarrerak itzultzeagatik hartzekodunak biltzen ditu.

c) *Zorrak taldeko erakundeekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin*. Hemen sartzen dira taldeko entitateekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin sortzen diren pasibo finantzarioak, 9 "Pasibo finantzarioak" kapitulutik eratorritakoak, eta 5 "Ondare sarrerak" kapituluko eta 6 "Inbertsio errealak besterenganatzea" kapituluko sarrera finantzarioen itzulketatik eratorritakoak, beste entitate batzuentzat eraikitako edo eskuratutako ondasunak ez badira.

d) *Bestelako zorrak*. Hemen sartzen dira taldeko entitateekin, talde anitzekoekin eta elkartuekin sortutakoak **ez** diren pasibo finantzarioak, 9 "Pasibo finantzarioak" kapitulutik eratorritakoak, eta 5 "Ondare sarrerak" kapituluko eta 6 "Inbertsio errealak besterenganatzea" kapituluko sarrera finantzarioen itzulketatik eratorritakoak, beste entitate batzuentzat eraikitako edo eskuratutako ondasunak ez badira.

2. Arrazoizko balioan baloratu behar diren pasibo finantzarioen balio doikuntza.

Lehenengo Xedapen iragankorreko 3. puntuaren arabera, pasibo finantzario guztiak 2015eko ekitaldiaren itxieran zuten kontabilitate balioan baloratuko dira, salbu "emaitza kontuaren bitartez arrazoizko balioan baloratu" beharreko pasibo finantzarioak, horien kontabilitate balioa egokitu egin beharko baita, 2016ko urtarrilaren 1ean duten arrazoizko balioa islatzeko.

Balio irabaztea edo galera kontabilitatean islatzeko, partida bikoitzeko doikuntza idazpen bat egingo da, eta kontrakontua 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" izango da.

6. Transferentziak eta diru-laguntzak.

Puntu honi dagokionez, entitateak begiratu beharko du 2015eko abenduaren 31n amaitu gabe dauden transferentzietan eta diru-laguntzetan —emandakoei nahiz hartutakoei— buruzko espedienteetatik pasibo berriren bat sor litekeen 2016ko urtarrilaren 1ean, 18 "Transferentziak eta diru-laguntzak" aintzatespen- eta balioespen-arauan aurreikusitako irizpideen arabera.

Zehazki, emandako transferentzia eta diru-laguntzeari dagokienez, entitateak aztertu beharko du transferentzia eta diru-laguntzetarako hornidurari alta eman behar zaion, laguntzak jasotzeko zehaztutako baldintzaren bat oraindik bete gabe dagoenean, baina beteko dela pentsatzeko arrazoizko zalantzarik ez dagoenean. Hala bada, alta emango zaio, partida bikoitzeko doikuntza idazpen baten bidez, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontuan kargatuta, eta 148 "Transferentzia eta diru-laguntzetarako epe luzeko hornidura" eta 588 "Transferentzia eta diru-laguntzetarako epe motzeko hornidura" kontuetan abonatuta,



bakoitzari dagokion zenbatekoan.

Hartutako diru-laguntzei dagokienez, entitateak ikusi beharko du "itzulgarriak" ala "ez-itzulgarriak" diren, aipatutako aintzatespen- eta balioespen-arauaren arabera, eta diru-laguntza "itzulgarria" bada bakarrik egin beharko da doikuntza. Doikuntza hori pasiboari alta ematea izango da, partida bikoitzeko idazpen baten bidez, 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontuan kargatuta eta 172 "Diru-laguntza bihur daitezkeen epe luzeko zorrak" eta 522 "Diru-laguntza bihur daitezkeen epe motzeko zorrak" kontuetan abonatuta, bakoitzari dagokion zenbatekoan.

7. Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak (Beste ente publiko batzuentzat kudeatutako inbertsioak)

12 "Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak" aintzatespen- eta balioespen-arauak ezarritakoaren arabera, 2015eko ekitaldia ixteko idazpenean ibilgetuko konturen batean erregistratuta dauden Beste ente publiko batzuentzat kudeatutako inbertsioak, kasu hauetako batean egongo dira:

a) Ondasun eraikitzea, eta nahikoa fidagarritasunez kalkula daitezke eraikitze kontratu, hitzarmen edo akordioari lotutako sarrerak eta kostuak.

b) Ondasun eraikitzea, baina ezin dira behar adinako fidagarritasunez kalkulatu kontratu, hitzarmen edo akordioari lotutako sarrerak eta kostuak, eta, halaber, ondasun eskuratzea (hau da, entitate kudeatzaileak ez ditu zuzenean eraiki).

b) apartatuko kasuak direnean, inbertsio hori jasotzen duen kontuak 2015eko abenduaren 31n duen saldoa birsailkatu egingo da eta 370 "Beste erakunde batzuentzat erositako edo eraikitako aktiboak" kontura eraman.

Gainera, entitate kudeatzaileak finantzaketarik jaso badu ondasuna eraikitze edo eskuratzeko prozesuan, partida bikoitzeko doikuntza idazpen bat egingo du finantzaketa gisa jasotako zenbatekoak abonatzeko 416 "Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboentzako aurrerakinak" kontuan eta kargatzeko 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontuan.

Bestalde, ondasuna hartzen duen entitate onuradunak birsailkatu egin beharko ditu entitate kudeatzaileari emandako zenbatekoak erregistratu dituen kontuaren saldoa eta 239 "Ibilgetu materialetarako eta ondasun higiezinetakoko inbertsioetarako aurrerakinak" kontuaren azpiko kontu batera –kasu bakoitzean dagokionera– eraman beharko du.

a) puntuan azaldutako inbertsioak direnean, 2015eko abenduaren 31n ondare kontuetan duten saldoa 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontura pasatuko da.

Gainera:

– Finantzaketarik jaso bada, eta 2015eko ekitaldiaren amaieran eginda dagoen obrari dagokiona baino handiagoa bada, entitate kudeatzaileak partida bikoitzeko doikuntza idazpen bat egingo du, finantzaketaren gehiegizko zatia doitzeko, 416 "Beste erakunde batzuentzat eraikitako edo eskuratutako aktiboentzako aurrerakinak" kontua abonatuz eta 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontua kargatuz.

– Hartutako finantzaketa (edo hartu ez dena) txikiagoa bada, 2015eko ekitaldiaren amaieran eginda dagoen obrari dagokiona baino, berez legokiokeen finantzaketara iristeko falta den zatiarekin doikuntza idazpen bat egin beharko du entitate kudeatzaileak, partida bikoitzekoa, kargua 446 "Ziurtatzeko dauden beste erakunde batzuentzat eraikitako aktiboengatik zordunak" kontuan eta abonua 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontuan eginda.



b) puntuan adierazitako inbertsioetan bezala, a) puntukoetan ere ondasunaren onuraduna den entitateak birsailkatu egin beharko du entitate kudeatzaileari entregatutako kopuruak erregistratzeko erabili duen kontuaren saldoa eta 239 "Ibilgetu materialetarako eta ondasun higiezinak inbertsioetarako aurrerakinak" kontuaren azpiko kontu batera –kasu bakoitzean dagokionera– eraman.

8. Interes tasaren eta kanbio tasaren arriskua estaltzeko eta kudeatzeko eragiketa finantzarioak

Kontabilitate entitateek begiratu beharko dute 2016ko kontabilitate irekieran era horretako eragiketarik baduten, eta, baldin badute, kontabilitate estalduratzat hartzeko bete behar diren baldintzak betetzen dituzten, 10 "Kontabilitate-estaldurak" aintzatespen- et balioespen-arauak ezarritakoaren arabera.

Arau horretako tratamendu kontable berezia aplikatzen zaien eragiketa finantzarioek, arauak ezarritako baldintza kualitatibo eta kuantitatiboak bete behar dituzte, hasteko, eragiketa finantzario hori formalki kontabilitate estaldurako izendatu behar da formalki 2016ko irekiera idazpena egiten den eguneko datarekin.

Interes tasaren eta kanbio tasaren arriskua estaltzeko eta kudeatzeko eragiketa finantzarioekin lotutako kontabilitate saldoak birsailkatu egin beharko dira, eta, behar izanez gero, berriro bloratu.

2015eko abenduaren 31n arriskua estaltzeko eta kudeatzeko erregistratuta dauden eragiketa finantzarioak birsailkatu egingo dira eta kontabilitate plan berrian dagozkien kontuetara eramango dira, eta, arrazoizko balioan baloratu beharreko eragiketak baldin badira, behar izanez gero, kontabilitate balioa egokituko zaie.

10 "Kontabilitate-estaldurak" aintzatespen- eta balioespen-arauan ezarritakoaren arabera kontabilitate estaldura gisa kalifikatu ezin diren arrisku estaldura eta kudeaketako eragiketak direnean, saldoak kontu berrietan birsailkatu ondoren, arrazoizko balioan baloratu beharko dira, 2016ko urtarrilaren 1ean duten balioa hartuta. Balio diferentziak, positiboak nahiz negatiboak, eragiketa finantzarioan kontabilizatutako balioari gehitu edo kenduko zaizkio, eta kontrapartida 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" kontua izango da.

Aintzatespen- eta balioespen-arau horren arabera kontabilitate estalduratzat jotzen diren eragiketak direnean eta arrazoizko balioan baloratu behar direnean, 2016ko urtarrilaren 1ean berriro ebaluatuko da horien balioa, irizpide horri jarraituz eta ateratzen den diferentzia, positiboa nahiz negatiboa, kontabilizatutako baliora eramango da eta kontrakontua 134 "Estaldura-tresnen balioespen-doikuntzak" kontua izango da.

Arrazoizko balioan baloratzen ez diren kontabilitate estaldurak direnean, hau da, estaltzen duten partidaren irizpide beraren arabera baloratzen direnak (esate baterako, kostu amortizatuko mailegu bat), erregistratutako balioa ez da aldatuko irekierako idazpena egiten denean.

Apartatu honetan aurreikusitakoaren ondorioz balioan gertatzen diren aldaketak, partida bikoitzeko doikuntza idazpen baten bidez kontabilizatuko dira.



9. Mendeko zuzenbide publikoko entitateen ondarean egindako inbertsioak.

Orain arte, tokiko entitateen kontabilitatean ez zen kontuan hartzen toki entitateen eta horien mendeko zuzenbide publikoko entitateen (organismo autonomo, enpresa-entitate publiko, kontsortzio, etab.) arteko dependentzia edo ondare loturarik, eta merkataritza sozietateekin zeuden harremanak bakarrik jasotzen ziren, 24 "Finantza inbertsioak tokiko sektore publikoko entitateetan" azpitaldearen bidez.

Tokiko kontabilitate plan berriarekin, aktibo finantzario gisa jaso beharko dira tokiko entitateek beraien mendeko edo beraiekin lotutako enteei egindako ondare ekarpenak, eta horien artean sartzen dira ondasun adskripzioak, 18 "Transferentziak eta diru-laguntzak" aintzatespen- eta balioespen-arauan 4. puntuan eta 19 "Ondasunen eta eskubideen erabileraren esleipenak eta beste doako lagapen batzuk " arauan ezarritakoaren arabera.

Multzo horretan sartuko liratekeen ekarpen guztiak –entitate jabeek mendeko entitateen "bizitza" osoan zehar egin dituztenak– kontabilitatean banan-banan berreskuratzea lan zaila, neketsua eta garestia izan litekeenez, gure proposamena da, kasu konplexuak eta kostu handikoak direnean, 2016ko urtarrilaren 1ean indarrean dauden ondasun eta eskubideen adskripzioak bakarrik aktiboratzea.

Tokiko entitateak aktibo finantzario bat islatuko du, adskripzioa egin zen unean kontabilitatean baja eman zitzaion ondasun adskribatuaren kontabilitate balio berekoa. Ha da, kontabilitatean erregistratutako aktiboaren balioa hartuko da, horri kenduta, halakorik badago, amortizazio metatua eta ibilgetuaren balio galeragatiko hornidura zaharra. Kontrakontua 120 "Aurreko ekitaldietako emaitzak" izango da.

Egindako ondasun adskripzio guztien kostua banan-banan bereizterik ez badago, lehenengo xedapen iragankorrean esaten denaren bidetik, aktibo finantzarioa baloratzeko kontuan hartu beharko litzateke entitate partaidetuaren ondare garbia, 2016ko urtarrilaren 1ean diru bihurtu gabe dauden plusbalioen zenbatekoarekin zuzenduta.

Ondare garbi hori baloratzeko, mendeko entitate publikoan kontabilitate irekieraren ondorioz egin diren kontabilitate doikuntza guztiak hartu beharko dira kontuan.

Entitatearen kontabilitatean aktibo finantzario horiei alta emango zaie partida bikoitzeko doikuntza idazpen baten bidez.

10. Ibilgetu ez-finantzarioa eraitsi, erretiratu edo birgaitzeko hornidurak.

Hornidura horiek berriak dira, kontabilitate plan berriak sartu ditu lehenengo aldiz, zehazki, 17 "Hornidurak, aktiboak eta pasibo kontingenteak" aintzatespen- eta balioespen-arauan. Entitateak begiratu behar du era horretako pasiborik baduen (obligazio estimatuak) kontabilitatea irekitzen den egunean (2016ko urtarrilaren 1ean) eta, baldin badu, erregistratu egin beharko ditu egun horretan duten balio eguneratuan. Kontrakontua ondasun hori erregistratuta dagoen ibilgetu kontua izango da.

Entitatearen kontabilitatean pasibo finantzario horiei alta emango zaie partida bikoitzeko doikuntza idazpen baten bidez.